

ANBOTOK edukirik onenaren TOKIKOM saria jaso du Zaldibarko zabortegiaren gainean egindako erreportajeagaitik. Artikulua 794. alean kaleratu genuen, otsailaren 14an, Eitzagako zabortegia amildu eta astebetera. Lau orrialdetako erreportaje zabala izan zen, gertuko kazetaritzak dituen osagalekin eta erredakzio talde osoaren inplikazioagaz ondutakoa. • 2



Edukirik onenaren saria, ANBOTOrentzat



"Hau kate baten modukoa da: ostalariak txarto badaude, gu ere halantxik gongo gara"

Iurreta • Nestor Fernandez de Arroiabek ardoz hornitzen ditu Durangaldeko hainbat taberna. Familia negozioa da berea, 'Arroiabe' ardo-banaketa enpresa bere aitak sortu zuen-eta, 1960an, lurretan. Gaur egun bost beharginek lan egiten dute bertan. Enpresaren alde batean denda dute eta ardoa saltzen dute

bertan, modu zuzenean. Beste aldean biltegia dago. Handik banatzen dute ardoa eskualde guztira. Dendagaz "politito" dabilzan arren, horregaz bakarrik aurrera egitea ezinezkoa dela dio Fernandez de Arroiabek. Ostalaritza "seinalatu" duten arren, ostalariak "egundoko lana" egin dutela eta "dena" eman dutela dio. • 8

Gabonetako gehigarria



'Zilar hautsak', azken agurra baino lehenago

Plateruena • Plateruena Kafe Antzokia agurtzeko, 'Zilar hautsak' ekitaldi sorta antolatu dute. Lau ekitaldiz osaturiko egitaraua da. Ipuin kontaketa, Anariren kontzertua, urteko azken bertso saioa eta 'alegrantzia-aren bermuta' egingo dituzte. Urtea zarratzeagaz batera ziklo bat itxiko da Plateruenean. • 4



ALKI

Dekorazioa eta berriztatze integralak

alki@interioresalki.com / www.interioresalki.com

Mikeldi kalea 6, 48200 Durango. 946813895/679097744

Zaldibarko hondakindegia- inguruan ANBOTOk kaleratutako erreportajeak TOKIKOM saria jaso du

Euskal Herriko Unibertsitateko eta Mondragon Unibertsitateko irakasleek osatutako epaimahaiak Goiena (Puntu), Erlo Telebista, Baleike, eta Aiurri ere saritu ditu

HEDABIDEAK • TOKIKOM

Garaiotara egokituta bada ere, azken urteotan hasitako bideari jarraiki, TOKIKOMek TOKIKOM Sariak banatu ditu aurtengo ere, euskarazko toki komunikabideen lanaren bikaintasuna aldarrikatzeko eta gizarteratzeko asmoz.

Segurtasun neurriek hala behartuta, sariak banatzeko ekitaldi

presentzialaren orde, toki telebistetan eta TOKIKOM sareko webguneetan batera emititu den telebista saio baten bitartez jakinarazi di-

**Segurtasun neurriek
hala behartuta, telebista
saio bat egin dute sariak
banatzeko**

tuzte saridunen izenak. Saio horretan, eta umore klabean beti ere, Mirari Martiarenak eta Idoia Torregaraik errepaso zabala egin diote euskarazko toki komunikabideek urtean egindako lanari, arreta berezia jarriz saria eskuratu duten edukietan.

Eduki onenaren saria ANBOTO astekariarentzat izan da.

Tamalez, 2020 arraro honek pisu handiko albiste asko eman ditu, tartean Zaldibarko hondakindegiko gertakari latzak. "Otsail erdialdean, Durangaldeko hedabideak lau orrialdeko tarte zabala eskainiz, ikuspuntu, testigantza eta kazetaritza molde ezberdinak uzartuz", azaldu du Tokikomek. Lan horri eman diote edukirik onenaren saria, Uribe-Kostako Hirukagaz eta Orio eta Aiako Karkaragaz norgehiagokan. "ANBOTO ahalegin handia egin dugu Zaldibarko hondakindegia hondamendiaren jarraipena egiteko. Horregaitik, epaimahaiari eskerrak eman gura dizkiogu", azaldu du Jone Guenetxea astekariko zuzendariak. Ekaitz Herrerak, Ainhoa Iraolak, Igor Galartzak eta Jone Guenetxeak idatzitako erreportajea izan da saritua. "Hedabide handiek ere landu duten gai batean, guk geure komunitatearen ikuspuntua eman dugu"

tzako Aiurri eta Sakanako Guaixe ere aritu dira lehian.

Komunitatearen saria

Aurtengo edizioan laugarren kategoria bat ere gehitu zaie horiei: Komunitatearen Saria.

Epaimahaiak aukeratutako bederatzita finalista hamar egu-

**"Hedabide handiek
ere landu duten gai
batean, guk geure
komunitatearen
ikuspuntua eman dugu"**

nean egon dira bozketagai, azaroaren hasieran, publikoak gogokoena aukeratzeko. Guztira, 1.256 boto jaso dira. Lehenengo hiru postuen artean oso alde txikia izan bada ere, botorik gehien jaso duen lanak 267 boto jaso ditu, guztien %21. Ondorioz, TOKIKOM Sarien 2020ko Komunitatearen Saria Beterri-Buruntzako Aiurrirentzat da, "#Bertsovid-19" ekimenagaitik.

TOKIKOMETik zorianak eman gura izan dizkiete saria jaso duten zein parte hartu duten toki komunikabide guztiei. Azpimarratu dutenez, "zabaldua dagoen aurreiritziaren kontra, euskarazko toki komunikabideek kazetaritza lan aparta egiten dute eta sari hauek oso argi utzi dute hori berritua, euskarri eta formatu guztietan, gainera". Antolatzaileek gonbitea zabaldu dute sariaren webgunea bisitatu eta bertan arakatzeko lan finalista guztiak, "benetan ederrak eta denbora eskaintzeko modukoak dira eta".

TOKIKOM Sarien epaimahaia Euskal Herriko Unibertsitateko Edorta Aranak eta Tania Arriagak, eta Mondragon Unibertsitateko Zuriñe Maguregik osatu dute. Lan zaila izan dute aukeraketa egiten, kalitate handiko eta eduki zein formatu oso ezberdinetako lanak aurkeztu baitira sariketara.



ANBOTOk lantaldea Tokikomeko sariagaz.



AZALIK ONENAREN SARIA

Puntu, "Suizidioa"



IKUS-ENTZUNEZKORIK ONENAREN SARIA

Erlo TB eta Baleike. "Marea errotaren arrastoaren bila"



KOMUNITATEAREN SARIA

Aiurri. "#Bertsovid-19".

Eneko Atxa sukaldari zornotzarrak Michelin izar bat gehiago lortu du

Sukaldari zornotzarrak Michelin izar bat eskuratu du Lisboan duen ENEKO jatetxean. Horrez gainera, izar berde bat ere jaso du jasangarritasunagaitik duen ardura dela-eta

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Apurka-apurka egiten den lanak fruituak ematen dituela diote, eta, badirudi, Eneko Atxaren kasuan ere halantxik dela. Sukaldari zornotzarrak Michelin izar bat gehiago gehitu dio bere sukaldaritzazibilbideari. Michelin gidak 2021eko gida berria kaleratu du asteen, eta

bertan izar bat esleitu dio Lisboako ENEKO jatetxeari (Portugal). Eneko Atxaren taldeko jatetxea da ENEKO, "gastronomiaren bitartez kultura, produktua, ingurunea eta bikaintasuna" batzen dituen.

Baina Michelin izarra ez da Lisboako jatetxeak eskuratu duen sari bakarra. Izan ere, *Izar Berdea* ere

eman diote. Sukaldariak "jasangarritasunarekiko duten sentiberatasuna" saritzen dute izar berdeagaz.

Boroa jatetxeak (Zornotza) eta Etxebarri jatetxeak (Atxondo) Michelin izar bana zuten alde aurretik, eta kategoria horri eutsi diote 2021eko gidan. Azurmendi jatetxeak hiru izarrei eutsi die.



Eneko Atxa sukaldaria. ARTXIBOA.

Dagoeneko 64 dira Zornotzako Udalaren diru laguntzak eskatu dituzten ostalaritza negozioak

Astelehenean zarratuko da diru laguntzak eskatzeko epea. Eskatzaileek enplegu bulegora jo beharko dute

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Epea zarratzeko egun gutxiren faltan, ostalaritza arloko 64 negozioak eskatu dituzte Zornotzako Udalak kaleratutako diru laguntza zuzenak. Tabernak eta taberna hornitzaileak daude eskatzaileen artean. Establezimenduak bat, bi edo hiru behargin baditu, 1.000

euroko diru laguntza jasoko du. Hiru behargin baino gehiago izanez gero, 1.500 eurokoa. Eskariak San Migel kaleko enplegu bulegoan egin behar dira. Astelehenean amaituko da eskariak egiteko epea. Abenduaren 2an, udalak 200.000 euroko diru poltsa ipini zuen ostalaritzari laguntzeko.



Jaurlaritzak ostalaritza zarratzea agindu zuen. Irudian, Zornotzako tabernak.



¹GLE 350 de modo elektrikoa, NEDC-en arabera. ²Baliozko eskaintza 2020/12/31ra arte. ³CompleteCare akordioa: 3 urteko bermea eta mantentze-lana, 60.000 Km egin arte. Higidura piezak berriz hartzen ditu, pneumatikoak izan ezik. Argazkiko modeloa agian ez dagoiko eskaintza. Informazio gehiago www.mercedes-benz.es/en.

Hibrido Entxufagarrien gama berria

EQ POWER

Ezagutu zuretzat dauzkagun 20 modelo baino gehiago.

Bizitza aukera batetik beste batera salto egitean datza. Horregatik, Mercedes-Benz-ek duen EQ Power Hibrido Entxufagarrien gama berrian 20 modelo baino gehiago aurki ditzakezu: konpaktuak, berlinak eta SUV-ak.

Ezagutu itzazu diesel eta gasolina bertsioak.

Mugarik gabe hiri barruan eta hiritik kanpo.

Merkaturatze-eskaintza.

- Gehienez 106 km-ko autonomia elektrikoa¹.
- Wallbox kargatzailea².
- 3 urteko bermea eta mantentze-lana opari³.



Mercedes-Benz

Aguinaga

Concesionario Koncesionario Ofiziala

Retuerto kalea, 38.

48903 BARAKALDO.

Tel.: 94 497 00 74.

www.mercedes-benz-aguinaga.es

Boroa enpresa-parkea, 2A-3 partz.

48340 ZORNOTZA.

Tel.: 94 630 17 47.

Botika Zaharra, z/g.

48014 BILBO (DEUSTU).

Tel.: 94 447 08 40.

Iparragirre etorbidea, 90.

48940 LEIOA.

Tel.: 94 463 11 75.



Hertzainakeko Gari eta Josu, Bilboko kafe antzokian, iaz.

'Zilar hautsak' Plateruenaren ibilbidea amaitutzat emateko egitaraua

KULTURA • A.M.

Plateruena agurtzeko, *Zilar hautsak* ekitaldi sorta antolatu dute urte amaierarako. Lau ekitaldi izango dira guztira, eta abenduaren 29koan, martitzenekoan, parte hartuko dute artistarik gehien. Martitzen horretarako, *Pareak bai* kantaldia antolatu dute, eta bertan dozena bat artistek parte hartuko dute. Euren artean, Hertzainak taldeko Garik eta Josuk, Zea Mayseko Aiorak eta Pitik, Bide Ertzeaneko Imanol eta Jonik eta Sei Urteko Jokinek eta Iñakik abestuko dute; Leire Bilbaok, Peru Magdalenak

eta Gotzon Barandiaranek ere parte hartuko dute kantaldian. 18:30ean hasiko da. Ekitaldiarako gonbidapenak astelehenean bertan agortu ziren, bazkideek ilara luzea osatu ostean.

Mireia Delgadok eta Saroa Bikandik emango diote hasiera ekitaldiei, *Zilarra batzeko koordinadak* ipuin kontaketa ibiltariagaz. Abenduaren 27an izango da hori. Egun bat geroago, Anarrik kontzertua eskainiko du.

Plateruak bermutean

Ia hamarkada biko ibilbideari amaiera emateko, abenduaren

31n 'Alegantziaren bermuta' ekitaldia egingo da Durangoko Plateruekin; 12:00etan hasiko da.

Urteko azken bertso saio bikoitza egingo da abenduaren 30ean; sarrerak agortu dira

Urteko azkena

Zilar hautsak ez da izango Platerueneko agurrean egingo den ekitaldi bakarra. Urteko azken bertso saio bikoitza egingo da

Plateruenaren zikloaren itxieran. Angoni Egaña, Nerea Ibarzabal, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus bertsoari saio bietan parte hartuko dute; Aitor Bizkarrak, Gorka Pagonabarragak, Eneko Abasolo 'Abarkas'-ek eta Txaber Altubek ere abestuko dute, 17:00etako saioan lehenengo biek, eta 19:00etakoan beste biek. Unai Iturriaga eta Ainhoa Urien izango dira gai jartzaileak, hurrenez hurren. Saio bietarako sarrera guztiak saldu dira.

'Zilar hautsak' Plateruenaren agur ekitaldiak

Abenduaren 27an, domeka, 17:30etan eta 18:00etan - 'Zilarra batzeko koordinadak', ipuin kontaketa ibiltaria 5etik 8 urtera arteko umeentzat, Mireia Delgado eta Saroa Bikandigaz.

Abenduaren 28an, astelehena, 19:00etan Anariren kontzertua.

Abenduaren 29an, martitza, 18:30ean 'Pareak bai' kantaldia. Gari & Josu Hertzainak, Aiora & Piti Zea Mays, Imanol & Joni Bide Ertzean; Jokin & Iñaki Sei Urte; Leire Bilbao, Peru Magdalena eta Gotzon Barandiaran.

Abenduak 31n, eguna, 12:00etan 'Alegantziaren bermuta' kantaldia. Plateruekin



Ekuru 2020ko emanaldi batean.

anboto ▶

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2020ko abenduaren 18a
19. urtea - 833. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak egoera sozioekonomikoari lotutako aurrekontuak landu gura ditu. Asteon aurreztu du 2021eko aurrekontuen proposamena. 33.872.080 euro izango ditu datorren urterako, eta, kopuru horretatik 4.487.021 euro gizarte arloan erabiliko lituzke. "Egoera gogorra ikusita", gobernu taldeak "hirigintzako inbertsioetarako partida murriztea erabaki du, partida sozialak indartzeko". Gobernu taldeak dio "durangarrak zaindu" gura dituela, eta "diru gehiago" erabiliko du arlo sozialean. "Horrelako krisi baten aurrean, non diru sarrera gutxiago ditugun eta aurrekontua murriztu behar dugun, gure bizilagunen ongizatea lehenetsi behar dugu beste ezeren gainetik", adierazi dute.

Udalak hainbat adibide ipini du aurrekontu proposamena ilustratzeko. Gizarte Ekintzarako, adibidez, 923.341 euro erabiliko ditu, "aurten baino %4 gehiago". Bultzatuko lirategien beste neurrietariko batzuk Taxilagun zerbitzua, merkataritza, ostalaritza, Berdintasun arloa edo Nagusien arloa lirategi. Skate park bat egiteko, 200.000 euro ipintzea du aurreikusita. Tabirako igerilekuak birmoldatzeko, 54.000 euro. Beste 35.000 euro umeen jolas parkeak hobetzeko, eta 24.500 Murueta

Durangoko Udalak politika soziala indartu gura du inbertsioak murriztearen truke

Udalak mahai gainean du 2021eko aurrekontuen proposamena. Udalbatzak hilaren 23an eztabaidatuko du



Artekalea, Durango.

Torre baserriko eta Errotaritzuena gizarte etxeko proiektuak idazteko. Jaitsiko diren partiden artean, ostera, goi-kargudunentzako partida dago. Partida hori %8 murriztea aurreikusi du udalak. Durangoko

Udalak esku artean duena proposamena baino ez da. Abenduaren 23an egitekoa den osoko bilkuran eztabaidatuko dituzte aurrekontuok, udalbatzako lau talde politiko guztiek.

Durangoko Murueta Torre auzo elkarteak Gabonetako balkoien lehiaketa antolatu du

Parte hartu gura duten auzotarrek gaurtik urtarrilaren 6ra arte izan beharko dituzte apainduta etxeko balkoiak

DURANGO • EKAITZ HERRERA

"Auzoari bizitasuna emateko eta auzokideak animatzeko" helburuagaz, Durangoko Murueta Torre auzo elkarteak Gabonetako balkoien lehiaketa antolatu du. Bertan parte hartu gura duten auzotarrek nahikoa izango dute balkoia apaintzea. Hori bai, abenduaren

20tik urtarrilaren 6ra arte izan beharko dute balkoia edertuta, aipatutako egun bi horiek barne. Elkarteak hiru sari banatuko ditu urtarrilaren 7an: Gabonetako produktuen saski bat, Mimo's ile-apaindegian erabiltzeko 50 euroko bonua eta Amalur tabernako hamaiketako bat.



Durangoko Murueta Torre auzoa.

EL CONQUISTADOR DEL CARIBE

BIZI EZAZU ABENTURA
estreinaldia
urtarrilak 11 astelehena

Neskazarrek eta mutilzaharrek ezingo dute bentanetara irten aurten

Datorren otsailaren 3an ez da San Blas eguneko azoka egingo Abadiñon. "Zeozar antolatuz gero, jendea Euskal Herri osotik" etorriko litzatekeela adierazi du alkateak

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Abadiño sanblasetan, neskazarrek bentanetan mutilzaharrek engainetan, dio koplak zaharrak. Bada, ez. Aurten ez da horrela izango. San Blas egunean (otsailaren 3an) ez da neskazarrik, mutilzaharrik ezta beste inortxo ere Abadiñora joango. Abadiñoko Udalak San Blas

eguneko nekazaritza eta abeltzaintza azoka ez egitea erabaki du.

Mikel Garaizabal alkateak azaldu duenez, jendea pilatzea saihestu gura dute erabakia hartuta. "Zeozar antolatuz gero, jendea Euskal Herri osotik etorriko litzateke", adierazi du. Beraz, osasun neurri begirako erabakia da azokarena.

Baina azoka bakarrik ez. Udalak nabarmendu du San Blas eguneko gainerako ekitaldi guztiak ere bertan behera geratuko direla aurten. "Oso erabaki gogorra, baina beharrezkoa" dela adierazi dute. Abadiñoko Udalak jaiak "normaltasunez" ospatu gura litzuzke 2022an.



lazio San Blas eguneko argazkia.



lurretako terraza eta dendak, irailean.

lurretako Udalak 25.000 euro ipiniko ditu ostalariei laguntzeko

lurretako Udalak diruz lagunduko die herriko ostalaritza negozioei. 13 establezimenduk jasoko dituzte laguntzok

IURRETA • AITZIBER BASAURI

"Sektore horrek duen garrantzia eta bizi duen egoera gogorra ikusita", ostalariei diru laguntza zuzenak ematea adostu zuten lurretako Udaleko talde politiko guztiek joan zen astean. Udalak 25.000 euro ipiniko ditu ostalaritzari laguntzeko. Modu horretara, 13 establezimenduk jasoko dute laguntza

hori. Laguntzak negozioan inplikaturako behargin kopuruaren arabera esleitu dituzte. Langile bat, bi edo hiru dituzten ostalaritza jarduerak 1.000 euroko laguntza jasoko dute. Lautik hamar langile bitartean dituztenek, bestalde, 1.500 euro. Uztailean, udalak beste partida bat kaleratu zuen autonomoiei laguntzeko.

Garaiko Gabonetako II. Azokan hamar ekoizleren produktuak egongo dira salgai

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garaiko Udalak eta Urkiola Landa Garapenerako Elkarteak Gabonetako II. Azoka egingo dute domekan, Garaiko plazan. Feria 11:00etan egongo da zabalik eta 10 bat postu egongo dira bertan. Besteak beste, gazta, txakolina, ortuariak, irina, garagardoa, ogia, txerrikiak, ahatekiak eta kontserbak eskuratu ahalko dira.

Emakume baserritarren lana ikusarazteko asmoz, azokaren eremuan panelak ipiniko dituzte emakume baserritarren irudiek eta hainbat esaldigaz.



lazio Garain egindako Gabonetako azoka.

Zaldibarko EH Bilduk ez du babestuko Elizaldeko igogailua

Koalizio subiranistak beste proiektu bi lehenesten ditu herriko Alde Zaharra "berpizteko"

ZALDIBAR • A.M.

EH Bilduk ez du Elizaldeko igogailuaren proiektua babestuko, Ibaia Maortua eta Aitor Lopez zinegotziek iragarritakoaren arabera. "Beste lehentasun batzuk daude Alde Zaharra berpizteko. Adibidez, Elexpe Sanjoangoa kultur etxea eta 'Amesten dugun patioa' gunea berpizteko proiektua erakargarriagoak dira; gainera, proiektu horrek eragina izango du

SR1 sektore erresidentziala erakitzerako orduan", adierazi zuten EH Bilduko zinegotziek. Aldi berean, salatu egin dute EAJren eta PSEren udal gobernuak ezezkoa eman diela eurek eginiko beste proposamen batzuei ere. Besteak beste, Euskal Herria kalea oinezkoentzat egiteko proposamenari eta Euskara eta Kultura Sailak urteko plangintzak osatzeko proposamenari.



IURRETA
Tellitu-n

3 logelatako
6 etxebizitza

2 logelatako
11 etxebizitza

Garajea eta
trastelekua barne

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Ilusioz proiektu
berriak garatzen

Tel.: 946 816 673
www.zarateyexpe.com

Osasun gida



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

Optometria
PSE: 162/13

Naia Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

keinu

- Optometrian teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoptometriazentroa.com

Fisioterapia
PSE: 119/13

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

Pedagogia
PSE: 63/63

UGATZ

**UMEAREN
GARAPENERAKO ZENTROA**
Laguntza goiztiarra,
psikomotrizitatea,
fisioterapia, logopedia

Juan Olazarán, 1 behea
DURANGO
ugatz@hotmail.es
944 668 370 - 615 782 090

Fisioterapia
PSE: 57/16

pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

Ginekologia
PSE: 93/18

mam ginekologia zentroa

Mikeldi 13, 48200 - DURANGO
T 946 05 53 04
info@mamginekologiadurango.com
www.mamginekologiadurango.com

HITZORDUA ESKATU
674 322 360

Podologia
PSE: 148/13

PAUSOZ PAUSO
Podologia klinika

Goiatz Murua
kol. zbk. 147
Ainhoa Elorza
kol.zbk. 238
Nerea Rodriguez
kol. zbk. 329

Kiropodia, onikopatia, alterazio dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Telefona: 946203630
Monago Torre 4, behea 48200 durango

Odontologia
PSE: 145/13

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenek, betidanik izan gara adituak esterilizazioan.
Orain, inoiz baino gehiago, den-dena prestatu dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194
454uecdental@gmail.com

Odontologia
PSE: 112/13

J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO
Tel.: 946 812 200

Estetika
PSE: 16/09

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaestheticadurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak... Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

Psikologia
PSE: 62/11

JON ARRUBARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAk

Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728



Zabaldutuzte, baina berriro itxiko ote dituzten errezeloagaz

Eusko Jaurlaritzak argi berdea eman dio ostalaritza zabaltzeari. Hori bai, arau zorrotzekin eta marra gorriekin

OSTALARITZA • EKAITZ HERRERA

Zabalik daude berriro, baina lokal barruko aforoa erdira murriztuta, ordutegia nabarmen txikituta eta terraza batean esertzeraz laguntzen ez duen klimatologiak baldintzatu. Durangaldeko ostalariek tabernak eta terrazak zabaldutuzte, baina epe laburrean zarratu beharko ote dituzten errezeloak dute askok. Izan ere, badituzte urduri egoteko arrazoiak. Eusko Jaurlaritzak ezarritako araudiaren arabera, udalerrri bat eremu gorrira pasatuko balitz, udalerrri horretako taberna eta jatetxeek ateak zarratu beharko lituzteke. Eusko Jaurlaritzak horren inguruko zehaztasu-

nak emango ditu astelehenetan eta eguenetan. Honen harira, Berrizko El Pastor del Gorbea jatetxeko kideek euren kexa zabaldutuzte sare sozialetan: "Udalerriren batean argi gorria pizten bada, bertako ostalaritzak ateak zarratu beharko dituzte, agerraldia torloju fabrika batean gertatu bada ere", diote. "Urtarrileko aldapa" deiturikoa aspaldi hasi zen ostalarientzat. Eta ez. Ez zen urtarrilean hasi, martxoan baino. Orain, inoizko erriparik handiena dute zain, 2021 hasierakoa. Eta bai, oraingoan urtarrilean hasiko da. Edizio hau ixterako, Zornotza eremu gorrian sartzeko mugan zegoen.

"Tabernarien eskarietan jaitsiera igarri dugu: lehengo laurdena ere ez digute eskatzen"



NESTOR FERNANDEZ DE ARROIABE

ARDO HORNITZAILEA Iurreta

Ostalariek bakarrik ez. Ostalariak hornitzen dituztenek ere egoera gogorra bizi dute. Iurretako Arroiabe enpresaren kasua da hori. Arroiabek ardoz hornitzen ditu Durangaldeko hainbat taberna. Nestor Fernandez de Arroiabe (Iurreta, 1958) da bertako arduradunetarikoa. Familia negozioa da berea, enpresa bere aitak sortu zuen-eta, 1960an. Gaur egun bost beharginekin lan egiten dute bertan. Enpresaren alde batean denda dago. Ardoa saltzen dute bertan, modu zuzenean. Beste aldean, biltegia dago. Handik banatzen dute ardoa eskualde guztira.

Ostalariak txarto dabilta. Zelan zaudete taberna hornitzaileak?

Hau kate baten modukoa da. Os-

talariak txarto badaude, gu ere halaxe egongo gara. Dendagaz martxa onean gabilta, polito. Jendea etxean egon denez, generoa eskatu dugu. Baina kontua da dendagaz bakarrik ezin dugula negozioa aurrera atera. Soldatetik aparte gastu finko asko dago. Furgonetak, aseguruak, bestelako gastuak... eta dendagaz bakarrik ezin da dena aurrera atera. Ostalariek, muga handiekin bada ere, negozioei berrekin diete berriro. Zer esaten dizute tabernariet? Momentu honetan ez dago kontsumorik. Taberna bateko terraza gainezka ikusi dezakezu, baina ostalariek diotena da gastuak estaltzeko baino ez dutela ateratzen. Bezeroak ordu erdi bat eman dezake terrazan eserita kafetxo batez, baina tabernariak errotazioa behar du. Bestetik, ordutegiak daude. Iruditzen zait ostalaritzari oso ordutegi laburrak ezarri zaizkiola. Asteburuetan 20:00etan zarratu behar hori adibidez, noiz eta negozioa hori egiten denean. Eta bitartean guk ezin dugu ezer egin. Eskarietan ere igartzen dugu hori. Lehengo laurdena ere ez digute eskatzen. **Pandemia hasi baino lehenagoko kopuruen laurdena ere ez?**

Ez, ez. Ezta pentsatu ere. Otsaila eta martxoa data baxuak izan

ohi dira normalean, baina aurten dena zarratu da kolpetik, eta ez dago kontsumorik. Durangora jotzen baduzu, eman dezake tabernetan topera dabilta. Baina ez da horrela. Beharginak badituzte, ERTEan izango dituzte. Kontuek ez dute ematen.

Bestetik, eremu gorriaren kontua dago. Udalerriren bat eremu gorrira igarotzen bada, ostalariek ezingo dute aterik zabaldutuzte. Zein interpretazio egiten duzu?

Zornotzatik nator. Banaketa bat egiten egon naiz han. [Edizio hau ixterako, Zornotza eremu gorrira pasatzeko mugan zegoen. Hori gertatuko balitz, ostalariek negozioak zarratu beharko lituzkete]. Ez dago segurtasunik, eta niri iruditzen zaidana da Erregenen pasatu ostean berriro ere zarratuko dizkigutela negozioak. Udan mugak zarratu izan balira, herritarrek bertan kontsumituko zuten.

Bada esan gura zenukeen beste ezer?

Denok garelako egoera honen errudunak. Ostalaritza seinlatu dute, baina esan beharra daukat ostalariek egundoko lana egin dutela. Dena eman dute. Bezero bat jarlekutik altxatzen denean, joan, garbitu, desinfektatu... Hori lan itzela da. Askok zaindu dute dena.

Berriz Mankomunitatera batzeak udalerrietako zerbitzu sozialei eragin diezaiekeela uste du EH Bilduk

Mankomunitateko osoko bilkurak egun honetan eztabaidatu behar zuen Berriz bertara batzeko eskaria. Edizio hau zarratzerako, bilkurako ordezkari politikoak batu barik zeuden

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Durangaldeko EH Bilduko hainbat ordezkari agerraldia egin dute asteon, Elorrioko udaletxean, Berriz Mankomunitatera batzeko prozesuaren aurrean duten interpretazioa azaltzeko. Berriz Mankomunitatera batzeak udalerrri guztietako zerbitzu sozialak kaltetuko ote dituen beldur dira alderdi subiranistako kideak. "Ez dugu ulertzen gizarte zerbitzuak zergaitik pasatuko diren Mankomunitatearen eskutara, pandemia baten erdian hain justu, udala zerbitzuak eskaintzen dabilenean. Mankomunitatera batzeak ez dakigu zelan eragingo digun", adierazi du Carmen Amezuak, Berrizko EH Bilduko zinegotziak.

Kontua da inkorporazio prozesua goitik behera eginda, Mankomunitateak hartuko lukeela Berriz-

"Informazio falta" delata, gaia behar den moduan baloratu barik egon dela dio EH Bilduk

ko gizarte zerbitzuak kudeatzeko ardura, orain arte horien zati bat Berrizko Udalak berak kudeatu duenean. Horren harira, Berrizko Udalak eskaintzen dituen eta Mankomunitateak Berrizi eskainiko lizkiokeen zerbitzuen arteko estrapolazioa egin du Amezuak: "Mankomunitateak 87.000 euro ipiniko lituzke Berrizko gizarte

zerbitzuetarako, Berrizko Udalak 310.000 erabili dituen orain arte zerbitzu horien zati bat estaltzeko". Gizarte zerbitzuetan aurreztuko ote den iradoki du Amezuak: "izan ere, kontuek ez dute koadratzen".

"Informazio falta"

Gainerako udalerrietako kideek azpimarratu dute ez daudela Berriz Mankomunitatera sartzearen alde edo kontra. "Hori ez da kontua", esan du Ane Abanzabalegik. "Informazio falta ikaragarria" egon dela salatu du, eta prozedura osoa "Mankomunitateko presidenteari eta Berrizko alkatearen artean" egin dela. "Informazio falta" horren ondorioz, Berriz Mankomunitatera batzeko prozesua ezin duela behar



Astelehenetan egin zuten agerraldia, Elorrioko udaletxean.

den moduan baloratu esan du koalizioak. "Ez dugu informaziorik eduki eta ez dakigu honek zer suposatzen dezakeen", esan du Lorea Muñoz Izurtzako alkateak. Elorrioko alkate Idoia Buruagaz azpimarratu du Elorriok urteak daramatzala "gizarte zerbitzuak hobetzeko eskatzen".

"Erantzunik bako galdera asko" daudela iritzita, Berriz Mankomu-

nitatera batzearen kontrako botoa emango zutela aurreratutako Aitor Lopezek. Mankomunitateko osoko bilkura egun honetan zen egitekoa, edizio hau zarratu eta gero. EAJ-ko, EH Bilduko, Herriaren Eskubideko eta Abadiñoko Independenten alderdiko kideek orduan erabaki behar zuten Berriz Mankomunitatera batzeko prozesuagaz zer egin.


LEKUAN LEKUKO EGUTEGIA

Ohiko saltokietan salgai

2021

Durangaldeko egutegia

- ABADIÑO Petite
Abadiñoako estankoa
- ATXONDO Kiosko Atxondo
- BERRIZ Egunon okindegia
- DURANGO Etxebarria Liburudenda
Hitz Liburudenda
- ELORRIO Ilargi
- IURRETA Iurreta kopistegia
- OTXANDIO Korostondo janari denda
- ZALDIBAR Imendia
- ZORNOTZA Ayerdi



ATXONDO

Azaroa

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	1	2	3	4	5

Abendua

1 2 3 4 5
6 7 8 9 10 11 12
13 14 15 16 17 18 19
20 21 22 23 24 25 26
27 28 29 30 31

Jesuitak Zatoz gu ezagutzera.
946010050
sanjose@durangojesuitak.org
www.informazaitas.eus

Smurfit Kappa
50 urte

anboto



Anboto
Komunikabideak



@anboto



@anbotokomunikabideak

Eibar klubak batzar informatiboa antolatuko du Mallabian, Areitioko Kirol Hiriko proiektua azaltzeko

Datarik zehaztu ez badu ere, Amaia Gorostiza Eibarko presidentek prozesuaren berri eman du bazkideen urteko batzarrean



Bazkideen batzarrean Kirol Hiria izango denaren irudiak erakutsi zituzten.

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Eibar futbol klubak bazkideen batzar orokorra egin zuen abenduan, eta bertan Amaia Gorostiza presidentek Areition eraikiko duten Kirol Hiri berriaren gaineko xehetasun batzuk eman zituen. Besteak beste, iragarri zuen Mallabian prozesu parte hartzaile bat bideratuko dutela eta batzarretara deituko dituztela herritarrek. "Prozesu horretan gure planteamenduen berri jasoko dute lehenengo eskutik eta herritarrek euren ideiak plazaratu ahal izango dituzte", azaldu zuen.

Batzar berean Gorostizak azaldu zuen "laster" abiatuko dutela lizitazioa Areitioko Kirol Hiria nork eraikiko duen jakiteko. Baina udal iturriek azaldu dutenez, oraindino nahitaezko tramite bat falta da prozesu hori abiatzeko. Plan Oro-

korrean aldaketa puntual bat egin beharra dago proiektuak aurrera egin dezan, eta horrek Bizkaiko Aldundiaren oniritzia behar du. Aldundiak hainbat ikuspuntutatik aztertzen du Kirol Hiriaren proiektua (ingurumenaren arlotik, obren arlotik...). Prozesu hori gainditzea eta Aldundiaren baietza jasotzea falta da oraindino.

Bost futbol-zelai handi

Azpiegitura berriak bost futbol-zelai handi izango ditu, futbol 11ra bideratutakoak. Atezainekin lan egiteko zelai txiki bat eta futbol 5era bideratutako zelai estali bat ere egingo dituzte. Kirol Hiriaren inguruetan aldatetak izango dira; esaterako, Areitiotik igarotzen den errepideko bidegurutzean biribilgune berri bat egingo dute.



Antzezlaneko une bat.

'Zoaz Pake Santuan' antzezlanak ikusgai, abenduaren 19an

MALLABIA • J.D.

Udazkeneko Ekintzak ekimen sortaren barruan, Txalo konpainiak Zoaz Pake Santuan izeneko ikuskizuna eskainiko du zapatu honetan, 18:30ean, Mallabiko pilotalekuan. Ane Gabarain eta Mikel Laskurain aktoreak dira protagonista. Antzezlanean, senarra pozoitu eta hiltzen ahaleginduko da emaztea, baina planak ez du irtingo aurreikusitako moduan eta horrek hamaika egoera komiko eragingo du.

Birziklapenerako edukiontzia zuzen erabiltzeko kanpaina Otxandion

Zapatuan informazio gune bat ipiniko dute plazan herritarren zalantzak argitzeko

OTXANDIO • J.D.

Gorbeialdeko Kuadrilla erakundeak kanpaina bat abiatu du hainbat herritan birziklapenerako edukiontzien erabilpen zuzena sustatzeko. Honako hau da kanpainaren filosofia: birziklatzerako orduan edukiontzia zenbat eta hobeto erabili, osteko materialen kudeaketa merkeagoa izango da eta, ondorioz, baita zerbitzua bera ere. Kanpainaren barruan, informazio 'Totem'-ak ipini dituzte Otxandion. 15 egunean egongo dira plaza inguruan. Horrez gainera, zapatuan, 11:30etik 13:30era, informazio gune bat ipiniko dute plazan, eta eskuorri informatiboak banatuko dituzte herrian.



15 egunean 'totem' informatiboak ipiniko dituzte herrian.

'Altxorraren bila' ekimenean parte hartzeko izen ematea gaur amaituko da

MAÑARIA • J.D.

Mañarian altxor bat ezkutatuta dago aurkitu gura duenarentzat. Abentura espiritua dutenek abenduaren 27ko domekan izango dute horretarako aukera, Katalamixon aisialdi taldeak antolatutako ekimenean. 2004tik 2010era arte jaiotako gaztetxoek bideratutako ekimena da eta gaur da azkenengo eguna bertan izena emateko: 11:00ak arte udal-etxean, eta 15:00etatik 19:30era liburutegian. Gutxieneko ume kopurua apuntatuz gero ekimenak aurrera egingo du, baina bestela ez. Bere sasoian gaztetxoek eurek egindako proposamenetatik irteerako ideia da 'Altxorraren bila' egitea.

2021eko hasieran ekingo diete espaloi berriak egiteko lanei izurtzan

IZURTZA • J.D.

Oinezkoen segurtasuna hobetzeko egitasmoaren barruan, Izurtzako Udalak espaloi tarte bi eraiki gura ditu herrigunetik Antonio Txiki okindegira doan errepide zatian. Bulegoko lanak amaituta, 2021 hasieran hasiko dira obretan, udal ordezkariak azaldu dutenez.

Errepidearen alde batean badago espaloia Durango, Izurtza eta Mañaria lotzen dituen, baina beste aldean ez dago antzerako azpiegiturarik. Horrela, Mañariko noranzkoan ezkerreko aldean joango dira espaloi tarte berri horiek. Inguru horretatik oinez dabiltzan segurtasuna hobetzea da egitasmo honen helburua.

ALDEKOA-OTALORA
iturgintza

**BEROKUNTZA - AIREA - GASA
INDUSTRI MANTENTZEA**

info@aldekoaotalora.com

Zubiourne, 8 IURRETA

946 202 768

Arzubia 10 B industrialdea, 13-14 pabiloiak ABADIÑO

944 071 791 - 692 859 779

R.P.S. 214/06
A. Urreta podbiogoa

Adinara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

Arrike
Liburudonda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

Herritarren ongizatea lehenetsi gura duen aurrekontua onartu du Elorrioko Udalak datorren urterako

Elorriok 7.838.634 euroko aurrekontua onartu du 2021erako, iazkoa baino %14,11 baxuagoa. EH Bilduk aurrekontuen alde bozkatu zuen, EAJ abstenitu egin zen eta Podemoseko zinegotziek kontra bozkatu zuten



Abenduaren 10ean egin zuten osoko bilkura.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak 2021eko udal aurrekontuak onartu zituen abenduaren 10ean, EH Bilduren aldeko botoekin. EAJ abstenitu egin zen eta Podemosek aurrekontuen kontra bozkatu zuen. Inbertsioak bigarren maila batean ipini, eta herritarren ongizatea lehenengo lerroan ipintzea erabaki du gobernu taldeak.

Elorrioko Udalak 7.838.634 euroko aurrekontua onartu zuen eguenean, 2020ko aurrekontua baino %14,11 baxuagoa. Hala ere, gizarte arlorako partida %65 handitu dute. "Ziurgabetasun handiko egoeran, pandemiak elikatutako gizarte eta ekonomia arloko krisian, argi eta garbi izan dugu zein zen lehentasuna. Udalaren lehen-

tasuna pertsonen ongizatea da. Elorriarrek euren udalaren babes izango dute beti, arlo pertsonalean eragin handia izaten ari den krisiari aurre egiteko, eta behar den ahalegin guztia egingo dugu euren ongizatea bermatzeko", esan zuen

2021eko udal aurrekontuetan gizarte arlorako diru partida %65 handitu dute

Idoia Buruaga alkateak.

Gizarte arloko diru laguntzak handitzeaz gainera, diru laguntzetarako lerro berriak sortzea aurreikusten du udalak, merkataritzako edo ostalaritzako negozio berriak zabaltzeko, edo erretiroagatik

erreleboak bultzatzeko, besteak beste. 2021eko aurrekontuak egitea "erronka bat" izan dela eta bakoitzak bere arloan "ahalik eta gehien doitu" behar izan dituela azpimarratu zuten EH Bilduko zinegotzi guztiek. Horrez gainera, Elorrioko Udalak ez ditu aurrekontu parte hartzaileak bultzatu, aurreko prozesuetan jasotako ideia batzuk ezin izan direlako oraindino egin eta horiek gauzatzeari emango zaiolako lehentasuna.

EAJ abstenitu egin zen aurrekontuen bozketan. "Aurrekontuei 11 zuzenketa egin dizkiogu eta ulertzen dugu, gainera, inbertsioek behera egitea. Balantza batean alde onak eta txarrak ipini ditugu, eta abstenitu egingo gara", adierazi zuen Mikel Arruabarrena EAJko zinegotziak. Bestalde, Agustín Fernández Podemoseko zinegotzia kritikoa agertu zen aurrekontu parte hartzaileak ez delako egongo. "Ez gaude aurrekontu sozialen kontra, baina bai aurrekontuak egiteko modua", amaitu zuen Fernandezek.

Berrizen 2.000 bonu kaleratu dituzte merkataritza sustatzeko

Bonuak eskuratu gura dituzten herritarrek 'www.bizi.berriz.eus' webgunearen bitartez erosi beharko dituzte

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berrizko Udalak eta Berrizko Merkataritza Elkartek bigarren kanpaina bat martxan ipini dute herriko merkataritza sustatzeko asmoz. Udaletik azaldu dutenez, urtarilaren 6ra bitartean 2.000 bonu ipiniko dituzte herritarren eskura. "Kanpaina hau saltoki guztietara dago zabalik. Eta uste dugu sasoi gogor hauetan haize freskoa ekarriko duela gure tokiko eko-

nomiaren oinarri diren merkataritza-zerbitzuetara eta ostalaritza saltokietara", azaldu dute Berrizko Udaletik.

Bonuak eskuratu gura dituzten herritarrek aukera bi izango dituzte. 65 urtetik gorako berriztarrek 619 621 971 telefono zenbakira deituta erosi ahaliko dituzte. Gainerako herritarrek, ostera, www.bizi.berriz.eus webgunearen bitartez erosi beharko dituzte.

2021ean eskolan sukaldea ipintzeko asmoa dute Atxondon

Eskolan sukaldea ipintzeaz gainera, Haurreskolan lanak egingo dituela azaldu zuen udalak azken osoko bilkuran

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko Udalak azken osoko bilkuran jakinarazi zuenez, datorren urteko ekainean Atxondoko Herri Eskolan sukaldea ipintzeko asmoa du Jaurilaritzak. Berton Bertokoa dinamikako kideek eta Atxondoko Ikasleen Guraso Elkarteak urte askoan egindako eskaria da sukaldearena. Lanak 2021eko udan egingo direla adierazi zuten azken osoko bilkura horretan.

Haurreskolako lanak

Jaurilaritzak sukaldea egingo duela jakinda, Atxondoko Udalak 110.000 euroko diru partida bat aurreikusitako datorren urteko udal aurrekontuetarako Herri Eskolarako. Hain zuzen ere, azken osoko bilkuran gobernu taldeak azaldu zuen diru partida hori Haurreskolan lanak egiteko izango dela. Atxondoko Ikasleen Guraso Elkarteak hainbat bider eskatu ditu lan horiek egitea.

Durango Udaleko 70 langilek protesta egin dute udaletxeko pasilloetan

Beharginek beltzez jantzita egin zuten protesta gobernu taldearen bulegoen pasilloetan

DURANGO • JONE GUENETXEA

ELAk prentsa oharrean azaldu zuenez, mahai negoziatzailea eguaztenean 10:00etan bildu behar zen eta, hori aprobetxatuta, 70 bat udal langile udaletxe barruan batu ziren ordu laurden lehenago, gobernu taldearen bulegoaren inguruan. Beharginak beltzez jantzita egon ziren. Gobernu taldeari hainbat gaitan euren desadostasuna adieraztea zen protestaren helburua, eta Langileak errespetatu, Akordioa



Udaletxean egindako protestaren irudia. ELA.

errespetatu zioten kartelak zituzten eskuetan.

"Pena handiz hartzen dugu egoera. Ezkerreko gobernu bat egaz elkar ulertzea errazagoa izan beharko litzatekeela uste genuen", diote ELAtik. Lan gatazka honetan hainbat gai dituztela mahai gainean azaldu du sindikatuak: "Lan hitzarmena, SACen egoera, enplegu-eskaintza publikoa, barne promozioak, errelebo kontratuak", diote ELAko kideek.

Politikan

Jesica Ruiz Perez
PSE-EE



GABON DESBERDINAK

Urte arrunt batean egun hauean Gabonetako agendak betetzen egongo ginatete: kuadrillako afaria, antzinako lankideekin janaria, unibertsitateko lagunekin parranda... Eta nola ez, familiarekin elkartzen gainerako bakoitzak zer eramango dugun antolatzen (nik postrea, zuk hasierakoak edo amamak bakailoa). Zoritxarrez, aurten Gabonak askorentzat oso desberdinak izango dira, baina ahal dugun neurrian ilusioa mantendu behar dugu eta inoiz baino gehiago saiatu ere gure herriko komertzioetan erosketak egiten. Bakoitzak arduratsu jokatu beharko du eta etxekoekin soilik elkartu. Gomendio guztiei jarraitu behar diegu, maskara ahalik eta gutxien kendu, eskuak garbitu eta etxea aireatuta izan. Aurten ospatu gabe utziko ditugun ospakizun guztiak aurrera eramateko

Maite ditugun pertsona guztiak bertan egotea nahi baldin badugu, orain elkar zaindu behar dugu

egunak izango ditugu etorkizunean eta ospakizun horietan maite ditugun pertsona guztiak bertan egotea nahi baldin badugu, orain elkar zaindu behar dugu.

Badirudi argia gero eta hurbilago ikusten dugula, txertoak espero baino lehenago helduko direla sumatzen da. Nahiz eta txertoen inguruan sortu den lasterke-ta oso fidagarria ez izan, ez dugu txertoa jartzeko beldurrik izan behar, zientziariengan konfiantza osoa behar dugu. Eta ordura arte, kontuz ibiliko gara. Zorionak eta urte berri on!

Durungaldea asteen

87 urteko gizonezko bat desagertu da eta bere bila dabilta domekatik

Durungaldea | Ertzaintzaren esanetan, "gutxienez" zapatutik dago desagertuta 87 urteko gizonezkoa. Harrezkero, gizonaren bila dabilta Durungaldean. Domekan, Durango, Iurreta eta Abadiño inguruan ibili ziren bere bila. Orain, Durango eta Iurreta inguruan dabilta. Airez eta lurrez ibili dira.

Abadiño merkatariak 17 otzara eta bizikleta elektriko bat zozkatuko dituzte

Abadiño | Abadiño Merkatarien Elkartek (AME) kanpaina berria hasi du. Herriko komertzioetan erosten duten herritarren artean 17 otzara eta bizikleta elektriko bat zozkatuko ditu. Bestalde, poltsa berrerabilgarriak emango dizkiete bezeroei. Zozketan parte hartzeko, herritarrek AMEren parte diren dendetan egin beharko dituzte erosketak. Zozketa urtarrilaren 7an egingo da.

Iurretako hiru eskolek bat egin dute Sahararen aldeko euskal karabanagaz

Iurreta | Maiztegi Herri Eskolak, Juan Orobiogotia Institutuak eta Iurretako Lanbide Heziketak bat egin dute Rio de Oro elkar-teak antolatutako XVII. Sahararen aldeko Euskal Karabanagaz. Hori horrela, abenduaren 16tik 22ra bitartean aukera egongo da eskoletan elikagaiak uzteko, idazkaritzan edo atezaintzan.



'Harroak' taldeak irabazi du Berbaroren Hirukoa galaren bigarren edizioa

Durango | Berbaro elkar-teak Hirukoa gala egin zuen zapatu arratsaldean, Plateruenean. 14 hirukote lehiatu ziren elkarren aurka, nor baino nor gehiago. Askotariko proba eta galderei aurre egin behar izan zieten. Memoria ariketak, musika taldeen abestiak identifikatzeko probak edo paperezko hegazkinak jaurtitzeko probak egon dira tartean. Lehiaketak fase bi izan zituen. Lehenengo fasean 14 talde lehiatu ziren, baina hiruk baino ez zuten lortu finalerako txartela: Piperbaltza, Porrusalda eta Harroak taldeek. Azken hirukote honek eramane zuen saria: Errigoraren saskia.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA · Izen-abizenak · telefonoa · helbidea · Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOREn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tar-teak barne).

Bulegorako zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografia

946 202 241
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

aek euskara praktikoa

DURANGALDEKO AEKren LAGUNAK
loteriaren 27.704 zenbakiaren hainbat partizipazio lapurtu dituzte **abenduaren 11n**.

Lapurtutako partizipazioek **EZ dute jokatu**ko abenduaren 22an egingo den zozketan.

000337-000350///001201-001225///001238-001250
001265-001275///001307-001400///001828-001839

Seguros Bilbao RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda
Landako etorbidea, 1 DURANGO

ORDUTEGI BERRIA: Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 15:30era
Zenbaki hauean emango diogu lehentasuna bezeroari:
946 20 27 10 / 688 86 11 37
Egunero eskainiko dizugu gure arreta ondorengo helbidean:
jrueda@segurosbilbao.com

BURUARI KLIK!




IKUSI ETA ERANTZUN

Beheko irudia ikusita, erantzun alboan dauden galderai.




- 1.- Zenbat lagun daude? _____
- 2.- Zenbat daude eskiatzen? _____
- 3.- Zenbat mendi tontor daude? _____
- 4.- Zenbat zuhaitz daude? _____
- 5.- Zenbatek daukate txapel urdina? _____





SUDOKUA

Kokatu beheko irudiak lauki zurietan.




DIFERENTZIAK

Topatu itzazu hamar diferentziak.



BIKIAK

Elur maluta bakoitzak bere bikia dauka.





Tartalo

ANTZERKIA **BERRIZ** :: Abenduak 18

Beldurrik eragin barik errealitatea koloreztatzuz

Tartaloren kondaira fantastikoa ardatz hartuta, Elorrioko Logela Multimediak ikuskizun berria aurkeztu berri du, umeentzat sortzen duen laugarren lana: *Tartalo*. Berrizko Kultur Etxean eskainiko dute ikuskizun berria, gaur. Joxemiel Barandiaran izango da obrako protagonista, eta narratzailearen txokotik bere abenturak eta mitologiako Tar-

talo izakiarenak kontatuko ditu. Emanaldia 17:00etan hasiko da.

Gaztagilea da *Tartalo*, begibarkarra, eta herrian beldurra diote, gizakiak panpina bihurtzen ei dituelako. Baina ipuin tradizionalean ageri diren beldurrezko elementuak umore eta kolore bihurtu dituzte Logelako kideek kolorez betetako ikuskizun honetan, azaldu dutenez.



Zine- ma

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **Sentimental**
barikua 18: 19:00
domeka 20: 19:00

:: Durango ZUGAZA

• **Wonder Woman 1984**
barikua 18: 18:30
zapatua 19: 16:00/18:30
domeka 20: 16:00/18:30
astelehena 21: 18:30
martitzena 22: 18:30
eguzatena 23: 18:30

• **Hasta el cielo**
barikua 18: 19:00
zapatua 19: 17:00/19:00
domeka 20: 17:00/19:00
astelehena 21: 18:30
martitzena 22: 19:00
eguzatena 23: 18:30

• **El inconveniente**
barikua 18: 19:00
zapatua 19: 19:30
domeka 20: 19:30
astelehena 21: 18:30
martitzena 22: 19:00

• **Los croods. Una nueva era**
domeka 20: 16:30
asteazkena 23: 17:00/19:00

:: Elorrio ARRIOLA

• **Adam**
zapatua 19: 19:00
domeka 20: 19:00
astelehena 21: 19:00

• **Bayala, una aventura mágica**
domeka 20: 16:00

:: Zornotza ARETOA

• **En guerra con mi abuelo**
domeka 20: 19:00
astelehena 21: 19:00

Abenduaren 18an

DURANGO musika
Kontzertua: Joseba B. Lenoir + Gaizka Insunza, 18:00etan, Plateruena kafe antzokian.

ELORRIO antzerkia
¡Ave osos! (El mono habitado), 19:00etan, Arriola antzokian.

ZORNOTZA ikuskizuna
‘Gorria’ (Miren Amuriza bertsolaria eta Askoa Etxebarrieta ‘La Pulga’ flamenko dantzaria), 19:00etan, Zornotza Aretoan.

Abenduaren 19an

BERRIZ musika
‘Anoche’ (Marta Cascales Alimbau), 19:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO musika
Nogen, 19:00etan, Plateruena kafe antzokian.

ZORNOTZA musika
‘Lieraturaren doinuak’ (Zornotzako Musika Banda), 20:15ean, Zornotza Aretoan.

Abenduaren 20an

ZORNOTZA musika
‘Lieraturaren doinuak’ (Zornotzako Musika Banda), 12:00etan, Zornotza Aretoan.

Abenduaren 22ra arte

IURRETA elkartasuna
Karabana Solidarioa. Rio de Oro elkarteak antolatutako elikagai bilketagaz bat egin dute lurretako Maiztegi eskolak, Juan Orobiogoitia institutuak eta lurretako Lanbide Heziketa Zentroak. Jakiak saharar errefuxiatuen kanpamenduetara bidaliko dira (arroza, lekaleak, pasta).

Abenduaren 26an

ELORRIO musika
Liher eta Cobra. 18:00etan, Arriola antzokian.

Abenduaren 30ean

ELORRIO musika
Laboa Jazz Quintet, 19:00etan, Arriola antzokian.


ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguzten eguerdia baino lehen.

#KulturaSeguruaDa



GUTUN-POSTAL LEHIAKETA
ABENDUAREN 23a lanak aurkezteko azken eguna

(Oinarriak udaleko web orrialdean eta kultur etxean)



URTARRILAK 4
HAURRENTZAKO IPUIN KONTALARIA

MAITE ARRESE
“Yogipuinak III” (Yoga + ipuinak)


Ordua:
11:00etan 3-5 urtekoak (lagundurik)
12:00etan 6 urtetik gorakoak



*Sarrera gonbidapenarekin izango da, Bibliotekan jaso daitezke.



DURANGALDEKO TXOKOAK



Mugarrako tontorra

Mugarra (964 metro) Aramotzeko mendilerroko hirugarren tontorrik garaiena da, Leungane (1.009 m) eta Artatxaganen (998 m) ondoren. Ekialdeko inguruan, Mañariko harrobia dago. Aramotzeko mendilerro guztia lez, Mugarra mendia Urkiolako Parke Naturalaren zati da.



DURANGO

Garena eginez Vivir y convivir

EZAGUTU EZAZU DURANGOKO HISTORIA

ETORRI MUSEORA



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

ARTE eta
HISTORIA
MUSEOA
DURANGOKO UDALA



MUSEO
de ARTE e
HISTORIA
AYTO. de DURANGO



“Durangoko Arte eta Historia Museoak norberaren historia ezagutzeko aukera ematen du”

Garazi Arrizabalaga Cabrerizo (1984) Durangoko Arte eta Historia Museoko zuzendaria da 2016tik. COVID-19a heldu denetik, hainbat ekimen garatu behar izan ditu museoa berrasmatzeko.

DURANGO •

Zelan eragin dio pandemiak museoari?

Guztioi moduan, txarto. Konfinamendu hasieragaz batera Internet bidezko programazio berezi bat sortu genuen museoari jarraipen bat emateko, digitalean bada ere. Egia esan, zenbait ekimenek oso harrera ona izan dute. Esaterako, ‘Aste bat, artista bat’ ekimenak Arte Garaikideko aretoko artista bat izan zuen ardatz, eta oso harrera ona izan zuen.

Bestalde, konfinamendua amaitu zenean bisitari kopurua murriztu egin zen. Udan jende gutxi etorri da, nahiz eta ‘Uda Kulturaz Blai’ programazio barruan egin ditugun ekintzetara jende mordoa etorri den.

Irailetik aurrera, oster, ia-ia normaltasunez joan da kontua. Pertsona kopurua bostera mugatu digute bisita gidatuetarako, eta penagaz geratu gara ezin izan delako jende gehiagok parte hartu. Ea apurka-apurka normaltasunera bueltatzen garen.

Pandemiaren aurretik zein zen museoaren joera? Zein izan da azken urteetako garapena?

Geroago eta jende gehiago zeterren museoa bisitatzera. Adibide modura, antolatzen ditugun ekintzak, hitzaldiak eta abar lehen ez ziren normalean betetzen, eta apurka-apurka, denboragaz, jende gehiago etorri da, denak betetzeraino. Badirudi museoak erreferentzialtasun handiagoa lortu duela azken denboraldian jendearen artean.

Zer eskaini diezaike Durangoko Arte eta Historia Museoak herritarrei?

Norberaren historia ezagutzea, batez ere. Askotan kanpora joaten gara eta beste leku batzuetako historia ezagutzen dugu eta, zoritxarrez, ez dugu izaten gure herriko historiaren berri. Gu nortzuk garen ulertzen lagundu diezaguke museoak.

“**Garrantzitsuena da herritarrek Museoak ezagutzea, eta, zentzu horretan, lan handia daukagu ikastetxeekin**”

Zein da museoak bisitariaren profila?

Profil orokorra egin beharko banu, esango nuke gehienak emakumeak direla, 40tik 60 urtera bitartekoak, eta, batez ere, Durangaldekoak. Hala ere, azkenaldian igarri da kanpotik ere jende gehiago datorrela, Bilbo aldetik gehienbat.

Zer estrategia mota ari zarete garatzen beste profil batzuegana heltzeko?

Jende gehiago erakartzeko teknologia berrien aldeko apustua egin dugu. Saiakera berezia egiten ari gara gazteen artean museoak sustatzeko. Horretarako, sare sozialei bultzada bat eman diegu, eta orain dela oso gutxi webgune berri bat kaleratu dugu: www.durangomuseoa.eus

Konfinamenduak balio izan digu ikusteko teknologia berrien bitartez jendearengana heltzeko modu gehiago dagoela.

Zeintzuk dira museoaren erakusketa egonkorak? Zer ikusi dezake museoaren doanak?

Aurtengo otsailean Historia Aretoa inauguratu dugu, baina han-

dik oso denbora gutxira heldutako pandemiak lan guztia izorratu digu. Dena dela, gure asmoa bisita gidatuak berreskuratzea da, bisitariari Durangoren historia ahalik eta modurik interesgarrienean kontatzeko, Aurrehistoriatik hasi eta gaur egunera arte.

Horrez gainera, hirugarren solairuan Euskal Arte Garaikidearen bilduma dago, euskal artista entzutetsuen lanekin osatuta.

Museoko hiru pieza aukeratu behar bazenitu, zeintzuk aukeratuko zenituzke?

Galdera gatxa da, baina hiru aukeratu behar banitu, Jose Luis Zumetaren *Erromeria*, Rafael Ruiz Balerdiren artelana eta Vicente Ameztoyren *autoerretrotoa* aukeratu nituzke.

“**Badirudi Museoak erreferentzialtasun handiagoa lortu duela azken denboraldian jendearen artean**”

Zeintzuk dira museoaren hurrengo erronkak?

Herritarrek museoak ezagutzea da garrantzitsuena, eta, alde horretatik, lan handia dugu egiteko ikastetxeekin. Museoan eskaintzen ditugun ekintzetariko batzuk ikastetxeek euren curriculumean txertatzea izango litzateke gure helburua.

Erakusketek gainera, eskaintza hezigarria duzue durangarrentzat, batez ere ume eta gazteentzat. Zein da herritarren erantzuna horrelako ekimenen aurrean?

Oso ona da. Askotan, ikastetxeetako ikasleak museora etorri ostean, asteburuan familiagaz etortzen dira berriro ere. Picassoren erakusketa egin genuenetik denbora asko pasatu da, eta oraindik ere ume asko erakusketa horregaz gogoratzen dira. Hori oso albiste pozgarria da guretzat, umeekin oso esperientzia politak bizi izan ditugu-eta museo honetan.

Amaitzeko, zer esango zenieke oraindik museo bisitatu ez dutenei?

Lehen aipatu dudana: norberaren historia ezagutzeko aukera aparta dela.

Gehigarria



Gabonak 2020

Gabon
seguruagoak
Erosi denboraz eta
denda seguru batean



Informazio gehiago:



Gabon jaiak 2020

DURANGO

Abenduaren 18a

18:00 Euskal artei lotuta Bilboko Arte Ederren Museoa dagoen bildumari buruzko hitzaldia Arte eta Historia Museoa
19:30 'Erradikalak ginen' bertso-antzerkia Ane Labakaren eta Beatriz Egizabalen eskutik. Landako Gunean.
20:00 Jesus Martin Mororen organo eta orkestra kontzertua. Andra Mariko elizan.

Abenduaren 19a

11:30 Arte martzialen erakustaldia Wado Kan Karate Ninjitsu klubaren eskutik. Landako Gunean.
18:00 Helduentzako zirkua D'Clic konpainiaren eskutik. Landako Gunean.
18:30 "La primavera del pianista". San Frantzisko elizan.
20:00 J.Haydn-en Nelson Mesa SIKA kontzertua. Andra Maria elizan.

Abenduaren 20a

12:30 Bartolome Ertzilla musika eskolako ikasleen kontzertua. Landako Gunean
18:00 Ikimilikiliklik antzerkia. San Agustin Kultur gunean.
18:30 Habanerak Neus y su grupo taldeagaz. Landako Gunean.
19:00 J.Haydn-en Nelson Mesa SIKA musika kontzertua. Andra Maria elizan.

Abenduaren 21

19:00 Cajita de música dantza garaikide ikuskizuna. Landako Gunean.

Abenduaren 22a

18:00 BAEMko bilduman emakumeen errepresentazioari lotutako hitzaldia. Durangoko Arte eta Historia Museoa.
19:30 Argi eta musika ikuskizuna Dendak Bairen eskutik, herriko hainbat kaletan.

Abenduaren 23a

19:30 Argi eta musika ikuskizuna Dendak Bairen eskutik, herriko hainbat kaletan.
19:00 El Cascanueces gazte antzerki balleta, L'Atelierren eskutik. Landako Gunean.

Abenduaren 26a

16:00 eta 19:00 Pirrotx, Porrotx eta Marimotots pailazoan Amaren intxaurrek ikuskizuna. Landako Gunean.
19:30 Gerardo Rifon eta Lucia Gomezen organo eta mezzosoprano kontzertua. Andra Maria elizan.

Abenduaren 27a

13:00 Bertso saioa Sustrai Colina, Miren Artetxe eta Bittor Altube bertsolariekin. Landako Gunean

Abenduaren 28a

12:30 Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoan 'Petitxou' ikuskizuna. Landako Gunean.
18:00 'Kattalinen bidaia' Panpotxen eskutik Landako Gunean

Abenduaren 29a

12:30 Marsel Magoaren 'Ilusionista'. Landako Gunean.
18:00 'Meri, Mari eta Lari' Eidabe taldearen eskutik. Landako Gunean.

Abenduaren 30a

12:30 'Piraten istorio bat' Erre produkzioak. Landako Gunean.
18:00 'Ametsen urtebetetzea' Kantu Koloreren eskutik. Landako Gunean.

Urtarrilaren 2a

17:00 eta **19:30** Go!azen Landako Gunean. Sarrerak abenduaren 28tik aurrera erreserbatu ahalgo dira.

Urtarrilaren 3a

18:00 Dantza moderno eta urbano saioa L'Atelierren eskutik. Landako Gunean.

Urtarrilaren 5a

19:00 Errege Magoak.

Urtarrilaren 6a

18:00 JAEDen zozketa benefikoa.
11:00-14:00/17:00-20:00 EIXU artisau elkartearen azoka

GARAI

Abenduaren 20a

11:00 Gabonetako II. Azoka. Baserriko produktuak. Plazan.

ELORRIO

Abenduaren 20a

16:00 BAYALA, UNA AVENTURA MÁGICA zinea.

Abenduaren 23a

12:30. LA INOCENCIA Zinea DBHko ikasleentzat
17:00. "OLENTZEROREN GUTUNAK" DEABRU BELTZAK Antzerkia

Abenduaren 27a

16:00etan. "IZARRETAKO LORE" Ipuin kontaketa eta margoa zuzenean

Abenduaren 29a

17:00. "DIBERTIDANTZA" DEABRU BELTZAK Animazioa

IURRETA

Abenduaren 18a

19:00. "La Soñadora", helduentzako ipuin kontaketa. Virginia Imaz.

Abenduaren 23a

Olentzerori eta Mari Domingiri gutun-postalak entregatzeko azken eguna.

Urtarrilaren 4a

11:00 (3tik 5 urtera bitartekoak) eta **12:00** (6 urtetik aurrerakoak). **Yogipuinak III, Maite Arreseren eskutik.**

MAÑARIA

Abenduaren 26a

17:30 Lunatikus Cirkus antzezlana Paraiso Antzerkia konpainiarena. Pilotalekuan.

Urtarrilak 2

17:30 Umeentzako 'Nomadak' antzezlana, Lunatikus Cirkus konpainiarena. Pilotalekuan.

MALLABIA

Abenduaren 20a

11:30. Zinema saioa: 11:30ean txikientzat eta 16:30ean 7 urtetik gorakoentzat. Kontzejuzarreen.

Abenduak 24a

18:00 Olentzero eta Mari Domingi. Herriko frontoian.

Abenduak 26a

17:30 Alex Txikonon 'Mendi biluzia' liburuaren aurkezpena. Herriko frontoian.

Abenduaren 27a

12:30. 'Magoa: bat, bi, hiru magia'. Herriko frontoian.
16:00 eta **18:00** Zinema Kontzejuzarreen.

Abenduaren 28a

17:30 Zirika Zirkus: 'Zinemaz Blai'. Herriko frontoian.

Abenduaren 30a

18:00 Skymetraje Play Pyrenees: film laburrik onenen hautaketa. Kontzejuzarreen.

Urtarrilaren 3a

12:30. Golden Apple Quartet. Herriko frontoian.
16:00 **18:00** Zinema Kontzejuzarreen.

Urtarrilaren 7a

18:30 'Eukalipto landaketen eraginak'. Hizlaria: Arturo Elosegí. Kontzejuzarreen.

Urtarrilaren 8a eta 9a

16:00 Gazteentzako rap tailerra Kontzejuzarreen.

saltsan
KONFANTZAN

MARTXAN JARRAITZEN DUGU, ZURETZAKO LAN EGITEN...
ORAIN INOIZ BAINO GEHIAGO, ZURE ZAIN GAUDE!

ZABALIK GAUDE!

Kurutziaga, 40 (Durango) - 946 200 427 - 688 773 205 - saltsan@saltsan.com

Bizkarra
jatetxea

Urkiola auzoa, 4-6 ABADIÑO
Tel.: 946 812 026

Ezin bazara Urkiolara etorri, zaude lasai. Geuk eramango dizugu eguneko menua (11,50 €) etxera. Baña menu bereziak ere. Egin eskaera aurreko egunean, whatsapppez (689802937) edo telefonoz (946812026)

Barrenkalea, 22 behea
Durango
Tlf.: 627 141 002

EL BADULAKE

El Badulake Durango | elbadulake.com

Urtarrilaren 15a

18:00 Antzerkia: 'Esnatu Naiz kabareta'. Kontzejuzarreen.**ZORNOTZA**

Abenduaren 24a

15:00-19:45 Olentzero eta Mari Domingi Zelaietako Amorebieta IV frontoian.

Abenduaren 26a

12:30 Go!azen 7.0 ikuskizuna Zornotza Aretoan (5€)
17:00 Go!azen 7.0 ikuskizuna Zornotza Aretoan (5€)

Abenduaren 27a

12:30 eta 17:00 Mireia Miracleren "Rojo" ikuskizuna Zornotza Aretoan.

Abenduaren 28a

12:30 Txirri, Mirri eta Txiribiton "Xaguxarroski kondea" Zornotza Aretoan (5€).**17:00** Txirri, Mirri eta Txiribiton "Xaguxarroski kondea" Zornotza Aretoan (5€).**19:00** Eñaut Elorrietaren kontzertua Amorebieta IV frontoian (5€).

Abenduaren 29a

12:30 "Só" Xanpatito pato Zornotza Aretoan (5€).**19:00** "Só" Xanpatito pato Zornotza Aretoan (5€).**19:00** Zetak taldearen kontzertua Amorebieta IV frontoian (5€).

Abenduaren 30a

12:30 "Olentzero eta iratxoan jauntxo" zinema (3€).**17:00** "Jon Braun", Anita Maravillas (5€).**19:00** Izaroren kontzertua Amorebieta IV frontoian (5€).

Urtarrilaren 2a

12:30, 16:00, 17:30 eta 19:00 "0!" Elirale dantza taldearen ikuskizuna (5€).

Urtarrilaren 3a

17:00 "Safari" La Baldufa antzerkia. (5€).

Urtarrilaren 5a

16:00-19:45 Errege Magoak Zelaietako Amorebieta IV frontoian.**ABADIÑO**

Abenduaren 24a

16:30 Olentzero eta Mari Domingiren harrera. Probalekuan.

Abenduaren 26a

19:00 Boca Beats: "Ze Demontre". Errota kultur etxean.**19:30** Gabonetako kontzertua: Miriam Cepeda (organista) - Celine Victores-Benavente (sopranoa) - Leonardo Valazza (baritono), San Trokaz elizan.

Urtarrilaren 2a

19:00 XV. Gospel Zikloa: "A sweet inspiration" (Ispirit), Errota kultur etxean.

Urtarrilaren 5a

16:30 Erregeen harrera, Traña-Matienako frontoian.**BERRIZ**

Abenduaren 23a

19:00 Lucas, música, acción (kontzertua), Kultur Etxean.

Abenduaren 26a

10:30 Aqua-Hitt Kiroldegiko igerilekuan.

Abenduaren 27a

10:30-11:30 / 12:30-13:30 Igeri jaia Kiroldegiko igerilekuan.

Abenduaren 28a

10:00-11:30 / 12:00-13:30 Ipuin ilustratua Eskolako patioa.**10:00-11:30 / 12:00-13:00** Grafitti Institutuan.**10:30-11:30 / 19:00-20:00** Nagusien uretako gimnasia kiroldegian.**17:30** Neguko zirkua Olakueta frontoian.

Abenduaren 29a

10:00-11:30 / 12:00-13:30 Gabonetako pertsonaia Eskolako patioan.**10:00-11:30 / 12:00-13:00** Gabonetako apaingarriak anbulatorio zaharreen.**10:00-11:30 / 12:00-13:30** Street Art Institutuan.**17:30** Distans Olakueta frontoian.**19:00** Zumba maratonia Kiroldegiko kantxan.

Abenduaren 30a

11:00-11:30 / 12:00-13:30 Kaleidoskopia Eskolako patioan.**10:00-11:30 / 12:00-13:30** Slackline-Parkour Institutuan.**10:00-11:30 / 12:00-13:30** Oihal margoak/ Zorroak.

Anbulatorio zaharreen.

16:30 Ibilaldi gidatua (Berriz- Andikoa-Berriz) Kiroldegiko atean.**17:30** Vademekun (ikuskizuna) Olakueta frontoian.

Urtarrilaren 2a

10:00-12:00 Ginkana Elizpean.

Urtarrilaren 4a

19:00-21:00 Kaloriak erretzekoa Kiroldegian.**17:30** Azken balea Olakueta.

Urtarrilaren 5a

10:30-11:30 Aqua Zumbing Kiroldegian.**ZALDIBAR**

Abenduaren 18a

17:30 eta 18:00 Ipuin kontalaria "Gabonak ilargi". OLAZAR pilotalekuan.

Abenduaren 21a

17:00 Haur antzerkia: "Olentzeroren zaku magikoa" OLAZAR pilotalekuan.

Abenduaren 24a

12:00etan MARI DOMINGI ETA OLENTZERO HERRI EKIMENA

Abenduaren 26a

18:00 XXXIII "OLAZAR" pilota txapelketa Youtuben.

- 1. partida IGOA - FERNANDEZ

- 2. partida binaka MATA eta IRURITA - J. ALBERDI eta GAZKUE

Abenduaren 28a

18:00 XXXIII "OLAZAR" pilota txapelketa Youtuben.

- 1. partida SENAR - ORMAETXE

- 2. partida binaka CARREGAL eta MORGA-ETXEBARRIA - ESPOSITO eta LICEAGA

Abenduaren 30a

17:00 Monda lironda pailazoak. OLAZAR pilotalekuan.

Abenduaren 31

16:30 XXXIII "OLAZAR" pilota txapelketako finalak Youtuben.

Urtarrilaren 2a

18:00 Afinkao taldearen emanaldia OLAZAR pilotalekuan.

Urtarrilaren 5a

17:00 Errege Magoak Zinema-saioa. OLAZAR pilotalekuan.**OTXANDIO**

Abenduaren 23ra arte

Hurrek Olentzerori eta Mari Domingiri eskutitza helarazteko jolasa martxan egongo da.

Abenduaren 20a

17:00, 'Oker' ume eta gaztetxoentzako zinema. Mainondoko gimnasioan.

Abenduak 24a

19:00. Olentzerori harrera. Herriko plazan.

Abenduaren 26a

18:30, 'Bi urte, lau hilabete eta egun bat', intsumisioari buruzko dokumentala. Mainondoko gimnasioan.

Abenduaren 27a

17:00, 'Kokitoren amona' antzerki ikuskizuna. Adin guztientzako haurrentzat gomendatua. Mainondoko gimnasioan.

Abenduaren 29a

19:30 Ene ba!, gazte eta nagusientzako komedia antzerkia. Mainondoko gimnasioan.

Abenduaren 31

20:00. Presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea. Kontseilupean

Urtarrilaren 2a

17:00 'Urpekariak' gaztetxoentzako antzerkia. 6tik 12 urtera artekoentzat. Mainondoko gimnasioan.

Urtarrilaren 5a

16:00etatik 20:00etara, 'Escape room' saioak. 8tik 16 urtera artekoentzat. Izen-ematea: abenduaren 21ean, 18:00etatik 19:00etara Guraso Elkartearen bulegoan.



ABENDUAK 18 TIK 22RA DURANGOKO LANDAKO GUNEAN, ARTISAU AZOKAN.

ARTISAU-LANAK

GORAKAT

www.gorakat.eus

Elorrion tailerra: San Juan kalea 6, behea
Tel.: 653 74 69 94



MARRASKI LEHIAKETA

Gaia:
Aurtengo gabonak durangon

Parte hartzaileak:
6-12 urte bitartekoak (a kategoria)
12 urtetik gorakoak (b kategoria)

Sariak: Folder dendako produktu sorta bat eta opari txartel bat

Nola/non aurkeztu: 6-12 urte bitarteko ikasleak beraien ikastetxeetan
Gainontzekoak folder dendan zuzenean, lana gutunazal batean sartu eta egilearen datu pertsonalak eta telefono kontaktu bat gehitu.

Epea: Abenduak 19

Sari banaketa: Abenduak 22

150 SAN ANTONIO GOSIETEA

Folder
DURANGO



TILIN TALAN

UMEEN ARROPA DENDA

Erreka Kalea, 30, Elorrio
Tlf: 946 82 03 44
www.tilintalanelorrio.com

f i



GOZATU GOZOTEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia



bed's

KOLTXOIAK - OHE OINARRIAK
BURKOAK - OHEKO ARROPA

Zure premiei erantzuteko prest egongo gara:

bed's koltxoi-denda
Alluitz, 1 - Durango
944 005 980



hitz

liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

Eskerrak WhatsApp-er eskatu
686 214 964

#salduenak

 <p>1^o POESIA, ZAURIEN UKENDU Ainhoa Urien (Pamiela)</p>	 <p>2^o DENDAOSTEKOAK Uxue Alberdi (Susa)</p>
 <p>3^o ETXEKO URAK Leire Bilbao (Susa)</p>	 <p>4^o BALEA ZURIA Peru Magdalena (Tantaka)</p>

bizum - er ordaindu



Ezkerrean, Ermodo kalea, Durangoko hainbat komertzio txiki batzen dituen kalea. Eskuman, jendea Otxandioko azokara sartzeko zain, joan zen domekan.

Erosketa bonuak eta azokak, tokiko komertzioari bultzada emateko ahaleginak urte amaieran

Urtea amaitu bitartean, erakundeek eta dendarien elkarteek askotariko ekimenak sustatu dituzte komertzio txikia bultzatzeko

DURANGALDEA • JOSEBA DERTEANO

Tokiko komertzio txikiarentzat urte gogorra izaten ari da aurten-goia. Zulotik irteteko inoiz baino beharrezkoagoa da salerosketak berraktibatzea, eta dendarien elkarteak zein erakundeak ahalegin horretan dabiltza, Gabonetako azokak antolatuz lehenengoak, eta erosketa txartelak eskuragarri ipin-niz bigarrenak.

Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Aldundiak eta hainbat udalek (Durango, Iurreta, Zornotza, Berriz eta Zaldibarkoak, esaterako) Gabonetako bonuak kaleratu dituzte. Erakundeetatik komertzioa suspertzeko egindako ahaleginak dira. Durangoko Udalaren kasuan, erosleek 15 euroko bonu bi erosi ditzakete, 20 euroko balioa dutenak. Bonuak eskuratzeko epea abenduaren 20ra

arte dago zabalik. Bonuak Turismo bulegoan, Landako Ikirodegian eta Arte eta Historia museotan eskuratu daitezke. Baldintza hauek bete behar dira bonuak eskuratzeko: adinez nagusia izatea, kreditu txartelagaz ordaintzea, NAN bakoitzagaz bonu bi bakarrik hartzea, eta, gehienez, 2 NAN agiri aurkeztea.

Horrelako kanpainen onura igaritzen ari direla azaldu du Alex Palacios Dendak Bai elkartearen presidentek, batez ere, komertzio sektore batzuetan: arropa-dendetan, zapata-dendetan, jostailu-dendetan... "Sektore batzuetan dezente mugitu dira salerosketak", Palaciosen esanetan.

Gabonetako azoka

Komertzioari bultzada emateko beste modu bat azokak antolatzea da: hau da, ekoizleak eta erosleak

gune batean hartu-emanetan ipintzea. Bide hori hautatu du Elorrioko Eixu Artisanu elkarteak. Abenduaren 18tik 22ra Gabonetako Artisanu eta Sortzaileen Azoka egingo du Durangoko Landako Gunean. Bost egunean goizean zein arratsaldean zabalduko dute: 11:00etatik 14:30era eta 16:30etik 20:00etara.

Durangoko Udalaren Gabonetako bonuak abenduaren 20ra arte egongo dira eskuragarri

Elorrioko Eixu elkarteak azoka bat egingo du Durangoko Landako Gunean abenduaren 18tik 22ra

Guztira, 26 artisauren eta sortzaileen batuko dira, eurretari 10 Durangaldekoak. Besteak beste, arlo hauetako produktuak bisitatu ahaliko dira: larrugintza, arropa diseinua, bitxigintza, zura, zestogintza, kosmetika naturala, ilustrazioak eta umeentzako osagarriak.

Azokaren lehenengo hiru egunetan erosketak egiten dituzten artean 50 euroko bonuak zozkatuko dituzte. Bonu horiek azokan bertan erabiltzeko izango dira.

Artisautzaz "gozatzeko" edo "Gabonetako opari bereziak egiteko" aukera "paregabea" dela uste dute antolatzaileek. "Azokan, mimo eta maitasunez egindako produktuak daude, detaile eta dedikazio osoz sortutakoak", azaldu dute.

Horrez gainera, Eixuk beste azoka bat antolatuko du Elorrioren,

abenduaren 23rako: Gabonetako Artisanu eta Sortzaileen Azoka. 09:30etik 14:30era egongo da zabalik, Elorrioko plazan.

Otxandion ere askotariko produktuen azoka egin zuten joan zen domekan, Kementsu elkarteak, Udalak eta Gorbeialdek antolatuta eta segurtasun neurriak zainduta.

Ostalaritza zabalik, onerako

Koronabirus kasuek behera egin dute azken asteetan eta, ondorioz, segurtasun protokoloa malgutu du Jaurlaritzak. Joan zen astetik libreki zirkulatu daitezke Bizkaian, eta ostalariek atek zabaldu dituzte. Ostalaritza zabalik egotea gainerako komertzioentzat "onuragarria" dela uste du Palaciosek: "Lehen, hotzagaz eta euriagaz, jendea lehenago etxeratzen zen. Orain, luzaroago egongo da kalean eta salerosketak berraktibatzen lagunduko du".

Herrien artean libre mugitzeko erabakiari aukerak eta arriskuak ikusten dizkio. "Jendea Durangora etorri daitezkeen moduan, kanpora ere joan daitezke, batez ere hiriburuetara", uste du.



“Jendeagaz berba egitea, musika ipintzea... Gustatzen zait saltsa hau, niretzat pozgarria da JAEDeko postuan egotea”

Alberto Ortuzar egunero egoten da JAEDen zozketa solidarioko postuan txartelak saltzen; zozketa egiten hasi zirenetik urte batean ere ez du hutsik egin



Alberto Ortuzar Andra Mariko elizpeko postuan.

ZOKZETA • JOSEBA DERTEANO

JAED zozketa solidarioa egiten hasi zenetik, urtero-urtero txartelak saltzen egon denetarikoa bat da Alberto Ortuzar Gonzalez de Etxabbarri (Durango, 1954). Erretiroa hartu aurretik, aste-buruetan egoten zen; orain hiru urte jubilatu zenetik, ia egunero dago bertan. Elkarrizketa ere hantxe egin diogu.

Zelan doa txartelen salmenta?

Iazkoa baino hobeto. Sarrerekin gastuak ez paretzeko beldur ginen hasieran, baina dagoeneko igarota dago langa hori. Herritarren berotasuna sentitzen ari gara eta horrek asko laguntzen du. Beraz,

alde horretatik esker oneko gaude. Azkenean, JAEDen zozketa solidarioa Durangoko Gabonetako parte bihurtu da apurka-apurka.

Esan dizue inork ohi baino txartel gehiago erosiko duela laguntzeko?

Bai, batek baino gehiagok esan dit: "Begira, seguruenik ez zait saririk tokatuko, baina txartelak erosiko ditut laguntzearen". Lehen bat erosten zuenak orain hiru erosiko ditu, beharbada.

Astean zenbat egunetan egoten zara postuan?

Astegunetan egunero egoten naiz, goizean ez bada arratsaldean. Zapatu goizetan ere bai. Jubilatu nintze-

netik langile finko bat naiz (barrez). **Inork esan dizu inoiz: "Zuk saldu zenuen txartelak saria izan du" edo antzerakorik?**

Inoiz, bai. Kotxearen txartela saldu dudanean edo antzerako kasuetan. Baina, tira, ez da askotan gertatzen zaidan zerbait. Gainera, nik badakit zein egunetan zer zenbaki saldu dudana eta nor etorri den erostera; batzuetan susmoa izaten dut nori zer egokitu zaion.

Zuk zeuk erosten duzu txartelik?

Bai, egunero ez bada ere, egun askotan erosten dut baten bat. Baina sekula ere ez zait ezer tokatu! Ezta saririk txikiena ere. Ez dut zortzerik

izan alde horretatik.

JAEDek Gabonetako Zozketa hasi zenetik, urte batean ere ez duzu hutsik egin.

JAEDen aurretik, Santo Hospital erakundearen egon nintzen, han ere boluntario. Gero, JAEDeko Gabonetako Zozketaren postuan hasi nintzen eta jendeagaz berba egitea, musika ipintzea eta saltsa hau guztia gustatzen zaidanez, niretzat oso pozgarria da hemen egotea.

Saltzen ez ezik arretoa ona eskaintzen ere jakin behar da?

Bai, alaitasuna, umore ona... osagai inportanteak dira. Gainera, jendea ondo portatzen da nigaz. Esaten

didate urteak aurrera joan ahala ez naizela zahartzen, betiko moduan nagoela, ondo mantentzen naizela... Ez dakit egia den, baina horrelakoak entzutea gustagarria da.

Zu zaudenean entzuten den musika zeuk aukeratzen duzu?

Bai, bai. Badaude CD orokor batzuk musikagaz, baina nik neure uzta-koa ekartzen dut. Nire sasoi bateko musika gustatzen zait eta horixe ipintzen dut, euskaraz zein gaztelaniaz. Jose Luis Perales, El Consorcio eta horrelakoak gustatzen zaizkit. Denerik ipintzen dut, gaztelaniaz eta euskaraz.

Erosleek begiratzen diote txarteletako

"JAEDen zozketa solidarioa Durangoko Gabonetako parte bihurtu da apurka-apurka"

zenbakiari?

Bai, batzuek zenbaki konkretu batzuetan amaitutako txartelak erosi gura izaten dituzte. Ni elkarren segidakoak erosi ditzatela konbentzitzen ahalegintzen naiz. Egunaren amaieran kontuak garbi izatea komeni da eta hemendik zenbaki bat eta handik beste bat saltzen hasten bazara nahasmena da guretzat. Gainera, beti esaten diet: "Egon dira saria bertan utzi dutenak egokitzen zen zenbakia barik beste bat eramatearren!". Azken batean, edozein zenbaki irten daiteke.

Zozketaren lehenengo alditik hona asko aldatu dira gauzak?

Hasieran, postua egurrezko barra-ka baten modukoa zen. Apurka hondatzen joan zen. Oraingo postu honek hamar urte daramatza eta oso ondo dago. Bestela, urtero antzerakoa da. Aurtengo gauza diferente bat da ume gutxiago dabilela inguruan. Jende pilaketak eragozteko telebistak itzalita ditugunez ume gutxiago batzen da postuaren ondoan.

**neumáticos
ETXEBARRIA**

Olio aldaketa - Pneumatikoak (marka guztiak)
- Balazta-pastillak - Motelgailuak

Uribitarte Industr. 6 48220 MATIENA-ABADIÑO
(Hiper Eroskiren ondoan)
Tel.: 946 232 520 - Faxa: 946 203 622
www.neumaticosetxebarría.com



INTXAUR-SAL TSA

EGITEKO MODUA:

Txikitu intxaurreak pasta fin bat lortu arte. Irakin ura eta kanela-zotza lapiko batean. Irakiten hasten denean, gehitu intxaurre pasta fina. Ura lurruntzen denean eta pasta potolo bat lortzen dugunean, gehitu esnea eta azukrea eta utzi egosten pasta fin bat lortu arte.

Eragin egin behar zaio itsatsi ez dadin. Aurkezpenerako, ontzi indibidualetan ipini. Kanela gehitu eta jateko prest egongo litzateke.



OSAGIAK

- Litro bat esne
- Litro bat ur
- 200 gr intxaurre
- 175 gr azukre
- Kanela-zotz bat
- Kanela-hautsa



Iñaki Uribe
SALTSAN-EKO ARDURADUNA

ZALDIBAR GABONAK 2020/2021

Abenduak 18, barikua
17:30etan eta 18:00etan Ipuin kontalaria "Gabonak ilargi"
OLAZAR pilotalekuan.
SARRERAK liburutegian.

Abenduak 21, astelehena
17:00 Haur antzerkia: "Olentzeroren zaku magikoa"
OLAZAR pilotalekuan.
SARRERAK liburutegian.

Abenduak 24, eguna
BADATZ MARI DOMINGI ETA OLENTZERO HERRI EKIMENA
12:00etan BISITA BIRTUALA

Abenduak 26, larunbata.
18:00etan XXXIII "OLAZAR" pilota txapelketa Youtuben
Streaming bidez eskainiko da Udalaren web orrian
1-partida: IGOA - FERNANDEZ
2-partida: binaka MATA eta IRURITA - J.ALBERDI eta GAZKUE

Abenduak 28, astelehena
18:00etan XXXIII "OLAZAR" pilota txapelketa Youtuben
Streaming bidez eskainiko da Udalaren web orrian
1-partida: SENAR - ORMAETXE
2-partida: binaka CARREGAL eta MORGA ETXEBARRIA - ESPOSITO eta LICEAGA

Abenduak 30, eguaztena
17:00etan Monda lironda pailazoak
OLAZAR pilotalekuan.
SARRERAK liburutegian

Abenduak 31, eguna
16:30etan XXXIII "OLAZAR" pilota txapelketako finalak
Youtuben
Streaming bidez eskainiko da Udalaren web orrian,
(EITB-K EMANGO DU 2021/01/01ean, 12:00etan)

Urtarrilak 2, larunbata
18:00etan Afinkao taldearen emanaldia
OLAZAR pilotalekuan.
SARRERAK liburutegian

Urtarrilak 5, asteartea
Errege magoen bisita birtuala
17:00etan Tor magoa
OLAZAR pilotalekuan.
SARRERAK liburutegian



Zaldibar
Elizateko Udala



www.gualbiasesores.com


- ✓ Aholkularitza fiskala
- ✓ Kontabilitate-aholkularitza
- ✓ Merkataritza eta finantza-aholkularitza
- ✓ Lan-aholkularitza
- ✓ Kontu-auditoretza
- ✓ Aholkularitza juridikoa

**Bezera, bere enpresako kudeaketa
eta bere gogobetetzea dira gure helburu nagusia**

Zumalakarregi kalea, 18 1.A - DURANGO
Tel.: 946 818 636 - Faxe.: 946 203 637 - info@gualbiasesores.com



F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



DURANGO
3 logela
ERDIALDEAN: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea, handiak. Ganbara. Bizitzera sartzeko moduan. C.E.E= G

215.000€



DURANGO
3 logela
J.OLAZARAN: 107 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. 3 logela (nagusia komunagaz eta terrazagaz), 2 komun, sukaldea eta egongela handia terrazagaz. Ganbara. Garaje itxia. C.E.E = E



DURANGO
MIKELDI: Apartamentua. Erdialdean. Erdi berria. Pisua eta 19 m2-ko ganbara batzeko aukera.

168.500 €



DURANGO
3 logela
ARAMOTZ AUZUNEA: 3 logela. Komun berria, sukaldea eta egongela. Berriztatua. Eguzkitsua. Igogailua ipintzeko aukera. CEE: F

125.000 €



DURANGO
3 logela
2 komun
ARTEKALE: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handiak. Terraza komunitarioa. Bizitzera sartzeko moduan. C.E.E= F

198.000 €



MATIENA
3 logela
Matiena: 3 logela, komuna, sukalde handia eta egongela. Terraza. Garajea aukeran. Alokairuan, erosteko aukeragaz. C.E.E: E

625€ / hilean



Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Txibitena kalea. 4 logela. Logela guztiak kalera ematen dute. Komuna, egongela eta despentsa. Garajea eta trastelekua.

DURANGO: Komentukalea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara. Ikuspegi ederrak.

DURANGO: Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

// ABADIÑO

ABADIÑO: Torresolo kalea. 3 logela. Berriztatua. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.

TORRESOLO: 3 logelako etxebizitza ederra. Guztiz berriztatua. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du.

ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.

// BERRIZ

ELIZONDO ETXETALDEA: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

// ATXONDO

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

// LURSAILAK SALGAI

DURANGO: 2.360 m2-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Zarratua eta zuhaitzekin. Eskaintza paregabea.

GAZTELUA: 10.000 m2-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

// BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ELORRIO: Araunas auzoa. Baserri eder bat eraikitzeko. 10.000 m2. Ikuspegi izugarriak.

MAÑARIA: Aldegoiena auzoa. 7.500 m2. Baserri ederra, leku lasaia eta baketsua.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m2-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO: Aldape auzoa. Baserria berriztatzeko. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 115.000 €

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bi bizitzeko baserria. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinetzeko.

// BULEGOAK ALOKAIUAN

ABADIÑO
20 m2-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifi-a barne.

// GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

// LOKALAK ALOKAIUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

// LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460 m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.




Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

www.inmoduranguesado.com




BERRIZ
1.100 m²
BERRIZ: 1.100 m2-ko lur eraikigarria, Margarita Maturana Hiribidean. Familiabakarreko etxebizitza eraikitzeko baimena.

250.000 €.



DURANGO
62,2 m²
ARAMOTZ: 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komun berria. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Laster igogailua ipiniko dute.

125.000 € C.E.E: E, Garajea aukeran




DURANGO
2 logela
67 m²
SASIKOA: sukalde jantzia, egongela eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (hegoaldea). Argitsua. 28 m2-ko garajea eta 3m2-ko ganbara barne. Igogailua.

229.000 €



IURRETA
700 m²
ARRIAUNDI INDUSTRIALDEA: 700 m2 (erabilgarri) gardenak, (16 m x 45 m), 8-10 m-ko altuera. Instalazio elektrikoa eta gas-erazgailua. Aurreinstalazioa zubi-garabirako. Sarbiderako ate handia.

525.000€, Alokairua: 2500€



DURANGO
2 logela
63 m²
ARAMOTZ: sukalde jantzia, egongela eta komuna. Berriztatua. Etxe osoak kanpora ematen du. Laster igogailua ipiniko dute. Garajea aukeran. Bizitzera sartzeko moduan.

129.500 € C.E.E: E



MUNTSARATZ
3 logela
81,7 m²
ARLOZABAL: egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia. 10 m2-ko ganbara. Eguzkitsua. Igogailua. Ezin hobea.

190.000 € C.E.E: E



Barrenkalea, 15 behea • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

//DURANGO

ALLUITZ KALEA: 4 logela, sukaldea, garbitokia eta 2 komun. Ganbara. Igogailua eta garaje itxia. 320.000 €/E.E.E=E

AMBROSIO MEABE: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia, igogailua, ganbara eta garaje itxia. LEHEN 205.000 € / ORAIN 198.000 €/ E.E.Z=E

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. 350.000 € / E.E.Z=F

EZKURDI PLAZA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Igogailua. LEHEN 321.500 € / ORAIN 300.000 € / E.E.Z=F

FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: 3 logela, sukaldea, egongela, bulegoa eta komuna. 220.000 € / E.E.Z=E

MURUETATORRE: 2 logela, sukaldea, balkoiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Ganbara eta garajea. 238.000 € / E.E.Z=E

TXATXIENA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua. LEHEN 390.000 € / ORAIN 375.000 € / E.E.Z=E

//ABADIÑO

ZELETABE: 3 logela, egongela, sukaldea eta 3 komun. Terraza. Garajea eta trastelekua. LEHEN 342.576 € /ORAIN 278.000 € / E.E.Z=E

//ATXONDO

ZIARRETA KALEA: 3 logela, sukaldea, despentsa, 2 balkoi. Garajea eta komuna. 160.000 € / E.E.Z=G

//BERRIZ

ANDIKONA AUZOA: Berreraikitzekeo baserria. 460.000 €.

BERRIZBEITIA KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. 120.000 € / E.E.Z=F

ERROTATXO KALEA: 3 logela, sukaldea, balkoiagaz, egongela eta komuna. 100.000 € / E.E.Z =G

LEARRETA MARKINA: 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia. 102.000 € / E.E.Z=E

//IURRETA

OROKETA AUZOA: 4 logela, 2 sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Lursailagaz. LEHEN 650.000 € / ORAIN 595.000 € / E.E.Z=E

AMILBURU MUSIKARIEN PLAZA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Igogailua. Ganbara eta garajea. LEHEN 276.000 € / ORAIN 265.000 € E.E.Z=E

//IZURTZA

BITAÑO AUZOA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Ganbara. 75.000 € / E.E.Z=g

//MATIENA

TXINURRISOLO: 3 logela, sukaldea, egongela, balkoiagaz, bainugela eta igogailua. LEHEN 200.000 € / ORAIN 168.000 € / E.E.Z=F

TRAÑABARREN: 3 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta bainugela. 2 balkoi. Igogailua. Ganbara eta garajea. LEHEN 220.000 € / ORAIN 210.000 € /E.E.Z=E

//OTXANDIO

ARTEKALEA KALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. 60.000 € / E.E.Z=G

//BERRIAK

IURRETA
FAUSTE AUZOA: Baserria. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara. Lursailagaz. 300.000 € / 7 E.E.Z=G



Botikak

BARIKUA, 18 · 09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

ZAPATUA, 19 · 09:00-09:00

BALENCIAGA
Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

MUGICA Andra Maria 9 - **DURANGO**

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

DE DIEGO Intxaurren 22. - **DURANGO**

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

UNAMUNZAGA Muroetatorre 2C - **DURANGO**

JAIO-ABENDIBAR
Errekakale 6. - **ELORRIO**

EGUREN, ISABEL
Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

DOMEKA, 20 · 09:00-09:00

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA, 21 · 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

MARTITZENA, 22 · 09:00-09:00

SARRIA Sasikoa 17, **DURANGO**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

EGUAZTENA, 23 09:00-09:00

UNAMUNZAGA Muroetatorre 2C - **DURANGO**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

EGUENA, 24 · 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEO 14:00AK ARTEKO EPEA



Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

GOZATU GOZATEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO / Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozategia



Zorionak, **Aretx!** Mosu erraldoi bat Axular, aitte eta aman partez. Segidu zaren modukue izeten! Askok maite zaitugu!



Zorionak, **Nile!** Mosutxo bat amatxon eta aitatxon partez.



Zorionak, **bihotza**, aitatxoren partez. Ondo ospatu eta jarraitu zaren bezalakoa izaten. Muxu handi bat!



Martinek abenduaren 21ean 9 urte egingo ditu eta **Telmok** abenduaren 16an, 7 urte. Familian partez zorionak alproja pare honi ta irriparre hori ez dezatela inoiz galdu! Mundialak zarete!



Zorionak, **Julene**, 12. urtebetetzean! Mosu asko maite zaitugun danon partez!

Eguraldia

ZAPATUA 🌧️ 12° / 5° ☁️

ASTELEHENA 🌧️ 16° / 9° ☁️

EGUAZTENA 🌧️ 14° / 7° ☁️

DOMEKA 🌧️ 14° / 8° ☁️

MARTITZENA 🌧️ 17° / 10° ☁️

EGUENA 🌧️ 11° / 5° ☁️



ALBERDI
HARATEGIA



ASKATASUN ETORBIDEA, 1 DURANGO · TEL.: 946 817 658

SABINO ARANA, 1 ZORNOTZA · TEL.: 946 308 722

“Beti topatu dut bidea musikagaz lotura mantentzeko”

Bizi osoa musikari lotuta egin du Karmelo Sarrionandiak; 50 urtetik gora daramatza gitarra eskolak ematen Durangon

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Durango domekeroko saloian hasi zuen gitarragaz duen hartu-eman Karmelo Sarrionandiak, 15 urte gaz. Oraindino bizirik dirau loturak. Elgoibarren musika klasikoa ikasi zuen; eta Bilbon musika modernoa, Karlos Zubiaga (Mocedades eta El Consorcio kidea) irakasle zuela. Eta hori amaituta, autodidakta izan dela aitortu du Karmelo Sarrionandiak. Ballini&Combo taldeagaz hainbat dantzalekutan jotakoa da. 1973ra arte jo zuen taldeak.

Europako hainbat herrialdetan ibili zinen Ballini & Combo taldeagaz.

Frantziara, Ingalaterrara, Suediara

eta Errusiara ere heldu ginen. Bilboko Aznar ontzi-enpresagaz hainbat bidaia egin genuen. Barkuko orkestra ginen. 19 urte nituen taldea sortu zenean. Ballini&Combogaz Bizkaiko eta Gipuzkoako hainbat dantzalekutan jo genuen, Kantabriari eta Burgosen (Gaztela-Leon) ere bai, garai hartako lehen mailako artistekin: Karina, Rocio Jurado, Raphael, Mari Trini, Mocedades... **Zelan gogoratzen duzu sasoi hori?**

Pozez gogoratzen dut esperientzia hura. Maila hartako artistekin jotzeko eta eurekin aurrez aurre egoteko aukera izan nuelako. Pelikula batean ere irten genuen, Jose Luis Lopez Vazquez eta Gracita

Moralesen horietariko batean. Peretegaz ere jo genuen orkestra moduan, eta Formula V taldeagaz. 1973an desegin zen taldea. Gauzak aldatzen hasi ziren: ez zituzten orkestrak eramaten, diskoak ipintzen zituzten dantzalekuetan... Eta traktoreak egiten zituen enpresa batean hasi nintzen lanean.

Musika baztertu behar izan zenuen. Ez. Garai hartan, Gontzal Mendibilegaz eta Xeberrigaz lan egin nuen. Hiruzpalau urtean aritu nintzen eurekin. Gero, eskolak ematen hasi nintzen. Bestalde, orain 15 urte Irrintzi taldea sortu genuen eta plazarik plaza ibili gara, orain gutxira arte. Bilboko Udalak antolatutako Bilbainada lehiaketan ere parte hartu dugu urteetan. Hiru urteko *impasse* txiki batean gaude, taldeki-

de baten osasun arazoengaitik. **Musika irakasten jarraitzen duzu. Hainbat belaunaldiri erakutsi diozu.** Bai, badira 50 urte gitarra jotzen irakasten hasi nintzela. Teknologia berriek eragin handia izan dute. Sarean material mordoa dago eta apur bat zolia izanez gero edozeinek ikasi dezake gitarra jotzen,

“

Pelikula batean ere irten genuen, Jose Luis Lopez Vazquez eta Gracita Moralesen horietariko batean”

eskolarik hartu barik. Musika estiloak ere asko aldatu dira. Musikari lez egokitzen joan behar izan dugu. Inoiz ere ez nuen pentsatuko Bilbainadak jotzen amaituko nuenik. **Zenbat instrumentu jotzen dituzu?** Gitarra elektrikoa zein klasikoa, bandurria, baxua, tronboia eta tronpeta. Dudarik barik, gitarra aukeratuko nuke denetatik. **Ez duzu inoiz ere baztertu musika. Zer da zuretzat musika?**

Dena. Beti topatu dut bidea musikagaz lotura mantentzeko, egokitzen joan naiz. Musikari lez, oholtzan edo erakusten. Orain, hiruzpalau pertsonari erakusten diet gitarra jotzen. Ondo datorkit jotzen jarraitzeko eta eskua ez galtzeko. Nire

“

Inoiz ere ez dut pentsatu musika uztea. Gitarra jotzen jarraituko dut ahal dudan bitartean”

zaletasuna mantentzeko era da. Ia 80 urte dituen ikasle bat dut; beste hiru 40tik 70 urtera bitartekoak.

Musika talde bat? Sasoi batekoen artean, El trio calaveras. Modernoagoa, The Beatles. **Abesti bat?** *Stairway to heaven* (Led Zeppelin) edo *Yesterday* (The Beatles). **Izan duzu inoiz musika alde batera uzteko asmorik?** Ez. Inoiz ere ez dut pentsatu musika uztea. Gitarra jotzen jarraituko dut ahal dudan bitartean.

Lauhortza

Bixente Aizpurua Eguren
Irakaslea / Jubilatua



Maite Zaituztet

Bi hitz polit hauek doinu eta esanahi berezi eta kuttuna duten arren zein gutxi ateratzen diren gure barnetik. Zorraz ordaintzeko direnez, ozenki eta argi eta garbi adierazi nahi dizuet nire maitasuna nire inurukoei.

Maite zaituztet, aita eta ama, zuen maitasunaren fruitua naizen honi bizitza, formakuntza eta heziketa zuzena emateagatik.

Maite zaituztet, amama Maitea (goian bego) eta tia Mari, nire lehenengo urte gogorretan tente irauteko zutabeak izateagatik.

Maite zaituztet, neba-arreba, koinatu-koinata, hurbileko senitartekoak eta lagunak, memento txarretan zaindu eta babestu nauzuelako.

Maite zaituztet irakasle bizitza luze honetan izan ditudan ikasle guztiak, eman didazuen bizipoza eta hain maitagarria den lanbide hau zuekin batera disfrutatzeke aukera eman didazuelako.

Maite zaituztet min egin didazuen bakan batzuek ere, begiak zabaltzen eta inozoa ez izaten irakasteagatik.

Maite zaituztet iritzi artikulua hauek irakurtzeko tartetxo bat hartzen duzuenak, niretzat lagungarriak baitira burua arin mantentzeko eta barnean biraka eta biraka darabilzkidan asmo eta pentsamenduak askatzeke.

Maite zaituztet, azken batean, nire bizitza zoragarri honetan inguruan zaituztedan guztiak egunero bizitzari zukurik goxoena ateratzen laguntzen didazuelako.

Hemendik aurrera ez zaitzete lotsatu eta adierazi lau haitzeta zuen maitasuna, honek bizitza politagoa egiten baitegu.



KARMELO SARRIONANDIA SOLAGAISTUA
Gitarra irakaslea
Durango | 1947

ALKIMAX

Irtenbideak alokatzen ditugu

BERRIZ Eitua industriagunea, 71C · Tel.: 946 824 550
GERNIKA Goiko Ibarra, 26 · Tel.: 946 271 310

alkimax@alkimax.net

www.alkimax.net



Ondo pasa gabonetan!



ERRADIADOREAK



HEZETASUN-KENGAILUAK



AIRE KANOIAK



INFRAGORRIAK



FAROLAK